



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

SOZIOLOGIA
IKASTURTEA 2016-2017

ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEAREN URRATS
FEMINISTA:
Aldaketaren nolakotasuna aztertzen

EGILEA: Mainer Galardi Fernandez de Agirre
ZUZENDARIA: Marta Luxan Serrano

2017ko maiatzaren 27a

Ikerketa honen bitartez, Ernai gazte antolakundeak azken lau urtetan aurrera eramandako Urrats feminista ezagutu eta prozesuaren ondorioz izandako aldaketak aztertu nahi dira. Horretarako, maila diskurtsiboa, militantzia eredua eta antolakudearen eraldaketa izango ditugu ardatz. Begirada feminista batetik eta metodologia parte hartzailea eta kualitatiboa erabiliz, herri mugimendu batean egon daitezkeen gizon emakumeen arteko parte hartze politikoaren ezberdintasuna agerian utzi eta erakunde misto batek horiek ekiditeko abian jarritako mekanismoen berri emango dugu.

Hitz gakoak: *Militantzia, politika, feminismoa, parte-hartzea, Herri mugimenduak*

Por medio de esta investigación/estudio se darán a conocer tanto las *Fases feministas* (Urrats Feminista) llevadas a cabo durante los últimos cuatro años por la organización juvenil Ernai, como los cambios experimentados a consecuencia de este proceso. Para ello, los ejes fundamentales serán el nivel discursivo, el modelo de militancia y la transformación del mismo organismo. Desde un punto de vista feminista y haciendo uso de una metodología participativa y cualitativa, se mostrarán las posibles diferencias de participación política de mujeres y hombres en un movimiento popular y los mecanismos puestos en marcha por una organización mixta con el objetivo evitar dichas diferencias.

Palabras clave: *militancia, política, feminismo, participación, movimientos sociales*

In this study, the *Feminist Steps* (Urrats Feminista) carried out by the youth organization Ernai will be exposed, together with the changes underwent as a result of this process. In order to do this, the discursive level, the membership model and the transformation of the organization itself will be the core ideas. From a feminist point of view and drawing on a participatory methodology, the differences between men and women's potential political involvement in a popular movement will be shown, as well as the mechanisms carried out by a mixed organization with the objective of avoiding those differences.

Keywords: *militancy, politics, feminism, involvement, social movements*

Aurkibidea

1. SARRERA.....	5
1.1 LANAREN AURKEZPENA.....	5
1.2 IKERKETAREN HELBURUAK.....	6
1.3 HIPOTESIAK.....	7
2. MARKO TEORIKOA: Generoa eta politika. Hurbilpen feminista bat.....	8
2.1 Oinarrizko kontzeptuen argipena: generoa eta politika.....	8
2.2) Herri mugimenduak eta praktika feminista.....	11
2.2.1) Emakumeak mugimendu sozialetan.....	15
3) TESTUINGURUA.....	17
3,1 FEMINISMOA EZKER ABERTZALEAN.....	17
3.2) ERNAIREN LEHEN LAU URTEAK.....	20
3.1.1) Ezker Abertzalearen gazte antolakunde berria: Ernai.....	21
3.3) Feminismoa eta Ernai; lau urteko prozesua.....	23
4. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA.....	25
4.1) DISEINU TEKNIKOA.....	28
4.1.1) Elkarrizketa sakona:.....	29
4.1.2) Ebaluazio saioa Donostian:.....	31
4.1.3) Taldearen behaketa Hernanin:.....	31
5. NOLA BIZI DUTE MILITANTEEK PROZESUA? Diskurtsoen analisia.....	33
5.1 Egiturako maila ezberdinetan bizitakoa.....	33
5.1.1 Militante feministen jarduna eta talde feministarena nola baloratzen da?....	34
5.1.2 Maila ezberdinetan urrats feminista egiteko topatutako erresistentziak.....	36
5.2 Teoria eta praktikaren arteko arrakala.....	39
5.3 Militantzia eremuan aldaketa.....	43
5.3.1 Nola heldu gara honaino?.....	44
5.3.2 Aldaketa nagusiak.....	44
5.4 Etorkizunerako erronkak.....	46
5.ONDORIOAK.....	47
5.1 Urrats Feminista; aldaketa diskurtsiboa baino gehiago?.....	48
5.2 Urrats Feministak prozesuan murgilduta egon direnengan edukitako eragina.....	51
5.3 Feminismoaren garrantzia beste ildo estrategikoekin alderatuz.....	52
5. 4 Gogoeta pertsonala.....	53
BIBLIOGRAFIA.....	55
ERANSKINAK.....	58
Karteldegia.....	58
Diseinu teknikorako gidoiak eta taulak.....	64

1. SARRERA

1.1 LANAREN AURKEZPENA

Ikerketa honen bitartez aztertu nahi da ea Ernai gazte antolakundearen prozesu feministak eragina izan duen militantzia ereduaren bilakaeran, ala, aitzitik, soilik aldaketa diskurtsiboa gertatu den. Izan ere, haren sortzetik, 2013tik, feminismoa lehen lerroko borroka ildo gisa identifikatu du kolektiboak, eta horretarako kanpora begirako dinamikak abian jarri ditu, baita barnera begirako prozesu bat martxan jarri ere (Urrats feminista). Lau urteren ostean, eta antolakundearen lehen kongresua berriki egin denez, interesgarria da gai honi heltzea; batetik, feminismoak antolakundearen izandako inzidentziari erreparatzeko, eta bestetik, maila orokorrago batean, emakumeek jardun politikoan duten eragiteko eta parte hartzeko gaitasuna neurtu ahal izateko.

Ernaien Urrats Feminista ikergaia denez, ikerketa ikuspegi feminista batetik egitea erabaki dut. Gainera, militantzia ereduaren inguruko berrikuspenera egiteko ahalmena eman dezake lanak, ustezko jardute politiko “neutroa” ezbaian jarritz eta sexu-genero arteko dominazioaren inguruko hausnarketa bultzatuz. Era berean, herri mugimenduek berezko duten jarduerak “kontra-hegemonikoak” barnean patriarkatua erreproduzitzen dutela ikusita, dominazio hori ahalbidetzen duten mekanismoak lausotuta, parte hartzea orekatuagoa bihurtzen ote den, eta militantzia ereduaren aldatzen ote den hausnartzeko bide emango du ikerketak. Horregatik, behin eta berriz egingo zaio erreferentzia feminismoari, teoria zein praktikei erreparatuz.

Izan ere, mugimendu sozialen azterketari erabat lotuta dago ikergaia den taldea bera objektu huts izatetik eraldatzeko gaitasuna duen subjektu izatera igarotzea. Horregatik, hasieratik Ernairekin hartu-emanen landutako ikerketa da, batez ere, antolakundeko talde feministarekin harremana mantenduz. Beraz, berrikuspen teorikoa egitean teoria feminista erabiltzeaz gain, ikerketa osoan zehar ikerlari eta ikertuen arteko harremana zaintzen saiatu naiz. Hori dela eta, eta maila nazionalerako ikerketa bat egitea baliabide aldetik ezinezkoa dela, Donostialdean oinarritutako azterketa aurkezten da; metodologia kualitatiboa eta parte hartzailea ardatz izango dituen.

1.2 IKERKETAREN HELBURUAK

Esan bezala, ikerketaren unibertsoa Donostialdeko Ernaiko militantzia izango da. Izan ere, metodologia atalean ikusiko dugun moduan, maila nazionaleko, herrialdeko (Gipuzkoa) eta eskualdeko (Buruntzaldea) kideekin hitz egingo dugu. Horrek egoeraren argazki orokor bat izateko aukeraz gain, prozesuaren inguruan egon daitezkeen pertzepzio ezberdinen berri ere emango digu; batetik eskualde mailan herri ezberdinetako ikuspegia jaso dezakegulako, eta bestetik hiri-herri aldagaiak kontuan edukitzeko aukera ematen digulako. Etengabe arituko gara, beraz, maila nazionaleko lanketa eta herrietako egunerokoaren arteko joan-etorrian. Ikerketa egiteko beharrezkoa dugu ikerketaren helburu nagusiak eta ikergalderak zehaztea:

1) Ernai gazte antolakundeak aurrera eramandako Urrats Feminista ezagutu eta horretan lanean aritu diren kideengan izandako ondorioa neurtzea:

-Urrats feminista aurrera eramanean duen kidegoak aurrerapenak sentitu eta modu positibo batean antzeman du egindako lana, ala aitzitik erredura eta nekea sortu du?

-Soilik haiengan delegatu da feminismoa lantzeko ardura?

2) Ernairen urrats feministak izandako ondorioak jasotzea eta neurtzea:

-Proposatutako lanketak eragina izan du egiturari ala diskurtsiboki baino ez da gauzatu?

-Barne kontraesanak agerian gelditu al dira?

3) Feminismoak duen garrantzia gainontzeko borroka ildoek dutenarekin alderatzea:

-Feminismoa antolakudearen zeharkako lan-lerroa bilakatu da edota egun zehatzetan eta modu isolatuan lantzen den gaia dugu oraindik?

-Beste borroka ildoekiko zein nolako mailan kokatzen da arlo hau?

Gainera, zeharka izan arren, Euskal Herri mailako antolakunde batean emakumeek zein nolako parte hartze eta esku hartze politikoa duten aztertzeko baliagarria izan daiteke ondorengo lana.

1.3 HIPOTESIAK

Ikerketaren helburuak eta ikergalderak zehaztu ostean, eta berrikuspen teorikoa egin aurretik, ikerketa hasi baino lehen formulatutako hipotesiak ditugu segidan. Horien baieztatu edo gezurtatuko dira ikerketan zehar, iker ildoak kontuan harturik.

1) Maila diskurtsiboan aldaketa egitea lortu bada ere, militantzia eredu eraldatzeko oztopoak azaldu dira.

-Horien arrazoia kolektiboaren antolakuntza eredu eta zenbait militanteren erresistentzia izan daiteke.

-Hiri eta herrien arteko konparaketan; herrietan aldaketarako erresistentzia gehiago azaldu dira.

2) Prozesuan parte hartu duten kideek gainkarga sentitu eta urrats feminista soilik haien ardura izango balitz bezala bizi izan dute.

-Maila nazionalak herriekiko duen deskonexioak eragina izan dezake uste horretan.

- Feminismoa “kanpoko” lanketa baten moduan jaso izan da gainontzeko kideengatik.

3) Oraindik ere erresistentziak daude feminismoa independentzia eta sozialismoaren mailako aldarrikapen gisa irudikatzeko.

- Egun puntualetako borrokatzat hartu ohi da.

-Ez du lortu beste aldarriek duten “estatusa”.

2. MARKO TEORIKOA: Generoa eta politika. Hurbilpen feminista bat.

Ernai gazte antolakundeak, sortze egun duen 2013ko martxoaren 13tik aldarri izan du feminismoa, sozialismoa eta independentziarekin batera. Ezker Abertzalearen barnean kokatutako gazte antolakundeak lau urteko ibilbidean zehar presente izan du feminismoaren aldarria, eta are gehiago; sortzetik urtebetera, 2014tik aurrera, abian jarri zuen Urrats Feminista deituriko prozesua. Egitasmoaren helburua argia izan da: militantzia eredua genero ikuspegitik aztertu eta taldeko kideen artean feminismoa ildo politiko gisa landu dadin beharrean aritzea. Kanpora begirako kanpainak ere egin izan ditu egun puntualetan (tartean martxoren 8a, ekainaren 28a, urteroko gazte topaketetan...). Ondorioz, kidego emakume eta gizonezkoen arteko botere harremanak, eta sistema heteropatriarkalaren ondorioz taldekide gizonen partaide emakumeekiko eduki ohi dominazio sistemikoarekin hautsi nahi izan du antolakundeak. Baina, lau urtetako prozesuaren ostean, lortu al du Ernai gazte antolakundeak ikuspegi feminista batetik eragina edukitzea militantzia ereduari? Ala, aitzitik, soilik kanpora begirako lanketa diskurtsiboa egitea lortu du?

Hori guztiaren inguruan hausnartzeko, batetik, beharrezkoa da politika eta erabakimenaren espazio publikoan emakumeek jokatzen duten paperaren berrikuspen teoriko bat egitea genero ikuspegitik, baita, dagokigun kasuari erreparatuz, herri mugimenduetan gizon emakumeen parte hartzearen desorekaren inguruan mintzatzea ere. Ezker Abertzaleko antolakunde batez ari garenez, ezinbestekoa izango da feminismoak erakundean edukitako intzidentziaren hurbilpen bat egitea; eta, amaitzeko, Ernaik azken lau urtetan egindako jardun feministaren berri emango dugu, alde batetik barne formakuntzari dagokionez landutako kaiarak berrikusiz, eta bestetik, feminismoaren marka aldarrikapenen lehen lerroan ipintzeko erabili duen estrategia diskurtsiboari erreparatuko diogu (kartelak, bideoak, hitzartzeak...)

2.1 Oinarrizko kontzeptuen argipena: generoa eta politika.

Ezaguna da gizon eta emakumeek politika arloan duten esku hartze desorekatua. Sistema patriarkalak hala banatuta, eta mendez mende naturalizatuta, gizon eta emakumeak sexu-genero sistemaren gainean osatutako ezaugarrien arabera eraiki dira, era dikotomiko batean; horrek eragina dauka, ezinbestean emakumeek jardun politikoan dute parte hartzean. Zertan datza, ordea, sexu-genero sistema?

Zenbait korronteren arabera, sexua fisiologian oinarrituta egindako ar/eme bereizketa objektiboa da. Generoa, berriz, bereizketa “natural” horren gainean eraikitako desberdintasun soziala. Prozesu sozializatzailearen bitartez, hortaz, ar edo

eme izan, balio jakin batzuk eraikiko zaizkio bata eta besteari. Eredu horri kontrajarriz, zenbait teorilari feministek baieztatzen dute sexuak eta generoak elkar eraikitzeke eta bata bestea bermatu eta iraunarazteko indarra dutela; alegia biak direla sozialki eraikiak, ustezko ezberdintasun fisiologiko batzuetan oinarrituta. Generoa, beraz, ezin daiteke gorputzetik apartekoa den balio edo aldagai baten moduan ulertu behar (Esteban, Mari Luz. 2004: 42). Azken ere du teoriko horretan oinarritua osatuko da lan hau. Sexu-genero sistemak, aipaturiko banaketa dikotomia oinarri hartu eta sozialki gizon izendatutako horiek emakume izendatutakoekiko duten dominazioa iraunarazten du; horretarako, noski, beharrezkoak dira, bata eta besteari balio jakin batzuk eranstea.

Hortaz, gizonari dagokio arrazoia, produkzioa edo ekoizpena, eremu publikoa, kultura. Andrazkoaren berezko ezaugarri bailitzan birproduzitu dira emozioa, erreprodukzioa, eremu pribatua eta natura. Horrela, sozializazio prozesuaren bitartez rol femeninoak eta maskulinoak banatu zaizkie bata eta besteari. Sexu genero sistemak, beraz, eragina du parte hartze politikoan, eta alderantziz, ekintza politikoa da genero harremanak iraunaraztearen arduradun (Amurrio, 2007). Banaketa zurrun horrek bi ondorio nagusi dakartza politikagintzan emakumeek eduki duten parte hartzeari dagokionez:

a) Politika eremu publikora mugatzea, eta, hortaz, instituzioei loturiko jardunari aitortzea politikaren zentzu zentrala. Eremu horri politika hegemoniko deituko diogu aurrerantzean. Espazio maskulinizatua da aipatutakoa, Pili Alvarezek ongi azaltzen duen moduan: *“Politika hegemonikoa esfera publikoaren parte da. Historikoki gizonentzako espazioa izan da, eta hortaz, maskulinizatua dago. Egiteko modu maskulinoak gailendu ohi dira eta lidergoa sustatzen da”* (Alvarez, Pili, 2012: 28). Mila Amurrioren hitzei berriz ere helduz, politika hegemonikorako jardun maskulinoak, batetik, mugatu egiten du emakumeen parte hartzea; bestetik, gainera, horien parte hartzea oztopatzen du.. Hainbat autorek iradoki dute emakumeek erakunde eta instituzioetan ez parte hartzea gizonen botereak iraun dezan sistema patriarkalak sortutako mekanismoa dela (Alfama eta Miró 2005).

Agerikoa da, hortaz, politika instituzionalean gizon eta emakumeen parte hartze desorekatua. Nazio Batuen Erakundeak argitaratutako ikerketa baten arabera, nazioartean, estatu mailako parlamentarien %22,8 dira andrazkoak; Europa Hegoaldean, berriz, %24,3. Hain zuzen ere, *defizit demokratikoa* deitu diote hainbat autorek genero arrakala horri (Alvarez, Pili 2012). Instituzioetako partaideen laurdenera iritsi ez arren, NBERen ikerketa berak aitortzen du azken hamarkadan emakumeen parte hartzeak gora egin duela erakundeetan (NBE, 2017). Agerikoa da, era berean,

Euskal Herriko hiru legebiltzarretan azken hauteskundearen ondoren (EAE eta Nafarroan) eta HELEP Ipar Euskal Herriko Herri Elkargoaren sorreraren ostean, emakume politikariek duten presentziaren gorakada. Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrean 34 andrazkok aritzen dira; guztira 75 izanda; alegia, ia %50. Nafarroako Parlamentuan, berriz, 50 kideetatik 25 dira emakumezkoak; erdia. Azkenik, sortu berri den HELEPa kontuan hartuz gero (mankomunitatea da, eta parlamentu autonomiko batek baino eskumen gutxiago ditu. Hala ere Ipar Euskal Herrian emakumeen parte hartze politiko instituzionalaren argazkia osatzeko erabilgarria izango da), bestelakoa da egoera. Herri Elkargoa osatzen duten herrietako hautetsiak eta alkateak dira instituzio honetan ordezkariak, eta bertako 233 kideetatik, 48 dira andrazkoak, %20 alegia.

Mari Luz Estebanek berriki argitaratutako liburu batean, aipatu du nabarmena dela instituzioetan jarduten diren emakumeen kopuruaren gorakada (Esteban, Mari Luz 2017). Aitzitik, zalantzan jarri du ea instituzioen feminizazioak berez egiten dion mesede politikan genero desberdintasunak gainditzeari. Era berean, aipatu du instituzioetan begirada ipintzeak herri mugimenduetako militantzia feministan beherakada ekarri duela. Horra lantzea dagokigun bigarren puntua.

b) Politikaren kontzeptu zabalenean ere badago desoreka gizon eta emakumeen parte hartzean. Politikaren kontzeptu zabalagoari dagokionez, ugari izan dira esanahia botere harremani lotu dioten autoreak. Esaterako, Kate Milletek politika talde bat beste baten kontrolpean gelditzeko biltzen diren harreman eta konpromiso egituratuak direla dio (Millet, Kate. 1969). Botere harremanen jolasean datza, hortaz, politikak, eta ondorioz, aurreko puntuan azaldu dugun politikaren kontzeptua baino eremu zabalagoa agertzen da eraldaketarako. Aurre pentsa liteke, beraz, eragiteko espazioa zabaltzeak, eragiteko moduan ere aniztu egiten dituela. Aurreko puntuan azaldu dugun *politika hegemonikoaren* molde maskulinizatuek, ez lukete zertan izan politika egiteko era honen marka garrantzitsua. Ikerlariak, ordea, bestelako baieztapena dakarte mahai gainera; egia da politikaren kontzeptualizazio zabalagoa jasotzen badugu ikusgarriagoa bihurtzen dela emakumeek egiten duten lana (izan guraso elkartean, auzo elkarreetan, herri mugimenduetan...). Hala ere, agerikoa da emakumeek gizonezkoek baino presentzia askoz ere txikiagoa dutela parte hartze politikoan.

Pili Alvarezen arabera (2012), emakumeek parte hartzearen ikusgarritasun falta bi arrazoi nagusitan oinarritzen da. Batetik, ustezko militantzia edo parte hartze politiko neutroa eredu maskulinoa dela oroitarazten du; eta ondorioz, politikagintza eredu hori

hasieratik dela baztertzaila emakumeentzako. Bestetik, edonolako politikagintza izanda ere (instituzionala, herri mugimenduetakoa...), andrazkoen parte hartzea askoz ere mugatuagoa dago; emakumeen militantzia sustatzea zaila izan ohi da; izan ere, lehenago aipatu moduan, politika eremu publikoari oso lotua dago; produkzioari baina ez erreproduktioari. Andrazkoek, beraz, aurre egin behar diote, eremu militantean egon nahi izanez gero, lanaldi hirukoitzari: etxeko lan erreproduktiboari, soldatapeko enpleguari, eta jardun militanteari. Agerikoa da, hortaz, politikaren ezein kontzeptualizazio hartuta ere denborarik ez izateak zein nolako eragina duen emakumeen parte hartze politikoan (Sagastizabal, Marina. 2016).

Mugimendu sozialak dira, hain zuzen ere, aipatu den azken politika eremu zabalago horretan jarduten diren kolektiboak. Aurrerago Ernaiz hitz egingo dugunean ere herri mugimenduarekin harreman oso estua duen gazte antolakundeaz hizketan arituko gara; eta hortaz aipatu politika kontzeptuen bi espazioen artean ibiliko gara etengabe; ezin ahaztu baitugu Ernai alderdi politiko baten gazte antolakundea ere badela. Kontuan hartuta eragiteko eta politika egiteko eredu eta antolakuntza ez-hegemonikoak (ere) erabiltzen dituztela mezua espazio publikora helarazteko, garrantzitsua da aztertzea genero ikuspegitik gizon eta emakumeen arteko parte hartze desorekatuak bere horretan irauten duen ala mekanismoak ezartzen dituzten parte hartzea parekoa izan dadin.

2.2) Herri mugimenduak eta praktika feminista

Politikaren bi plano (gutxienez) bereizita, jarduera ez hegemoniko horiek aurrera eramaten dien egitura garrantzitsu batzuei egin behar diegu erreferentzia: mugimendu sozialei, alegia. Ugari dira horien inguruan egindako definizioak, baina orohar, segidan azaltzen diren ezaugarriak betetzen dituzte: agente sozialak dira, egunerokotasuneko botere harremanen eta politika instituzionalaren artean mugitzen diren kolektiboak ditugu, espazio publikoan jarduten direnak. Ondorengoia izan liteke mugimendu sozialen gaineko definizio egoki bat:

“Mugimendu sozialak nortasun mobilizatzailea duten aktore politiko kolektiboak ditugu. Haien helburua ekintzen (orohar ez konbentzionalak) bidez aldatetaren helburua lortzea izan ohi da. Horretarako nolabaiteko jarraipen batekin egiten dute lan eta integrazio sinboliko maila altuarekin ere bai. Aldiz, rolen espezifikazio maila gutxi izaten dute. Antolakuntza eta ekintza eredu aldakorra izaten dute” (Marti i Puig, 2002:1)

Ikusi daitekeen moduan, politikarako eremu ez konbentzionala ere hartzen dute mugimendu sozialek; eta, hortaz arestian aipatutako Kate Milleten politikaren

definizioan eragiteko gaitasuna adierazten dute (botere harremanen gainekoa, alegia). Hain zuzen ere, mugimendu sozialen berrikuspen horren ostean, eta batik bat 60ko hamarkadako mugimendu kontrakulturalen eta 68ko maiatzaren gisako mugimendu indartsuen espresioarekin batera, kontzeptualizazio berri bat sortzen da mugimendu sozialen azterketan: Mugimendu Sozial Berriak. Hemendik aurrera, mugimendu sozialek ez dute soilik oinarrian klase sozialean eta ekonomian oinarritutako aldarrikapena izango. Aitzitik, borroka berriak gehitzen zaizkie (politikan eragiteko eta politika egiteko espazio berriak irekitzen diren seinale) klasiko horiei: ekologismoa eta feminismoa, esaterako, garai horretan hasten dira mugimendu sozialetan presentzia izaten. Garrantzitsua da aldaketa hori azpimarratzea; bi aspektugatik, batik bat:

a) Herri mugimenduei aitortzen zaien balio berria:

Azaldu moduan, 60ko hamarkadatik aurrera, espresio politiko berriak sortzeak, politika egiteko eta politikan eragiteko modu berriak ireki ditu. Orduetik, balio erantsia izan dute Mugimendu Sozial Berriak deiturikoe; ezinbestean politikaren ulerkera berrian subjektu politiko aktibo bilakatzen dira; eragiteko gaitasuna dutenak. Zesar Martinez eta taldekideek Hegoa Institutuaren lan-koaderno batean aditzera ematen dituzte zein testuingurutan sortzen diren herri mugimenduak, eta zein diren horien ezaugarriak:

“Herri mugimenduek krisi garaietan arrazoi estrukturalak eta dominazio sistemikoak identifikatzen dituzte, eta horien aurka egiten dute edo horiekiko erresistentzia ipini. Hainbat dominaziori egiten diote aurre, antolakuntza eredu, harreman, egitura, prozesu eta jakintza kontra-hegemonikoa sortuz”. (Casado, Beatriz; Ibarra, Pedro; Martinez, Zesar. 2012: 30)

Definizio hori ikerketara ekarrita, herri mugimenduaz ari garenean haren dominazioaz jabeturik egoera iraultzeko, edo egiturari erresistentzia egiteko subjektu politiko batez ari garela esango dugu. Ernaik, lehenago ere aipatu bezala, baditu, hala ere alderdi politiko konbentzional edo herri mugimendu “klasikoak” dituen ezaugarriak. Batik bat antolakuntza ereduari dagokionez: egitura hierarkizatua eta zentralizatua du, nahiz eta horren inguruko lanketa ere eraman duen aurrera. Aitzitik, Martinez, Ibarra eta Casadok aipaturiko jakintza, prozesu eta harreman kontra-hegemonikoak abian jartzen aritu da gazte antolakundea hasieratik. Politika *hegemonikoan* hain presente ez dauden zenbait borroka espazio eta borroka molde jomugan ipiniz. Hain zuzen ere, ikerketa honetan horietako bati egingo diogu erreferentzia: Ernairen Urrats Feministari.

b) Feminismoa erakunde mistoetan:

60ko Hamarkadatik aurrera indartsu egituratu izan da feminismoa Euskal Herrian. Orohar herrietako asanbladen bitartez eta herrialdeetako koordinadoreen bitartez antolatu izan dira feministak (Esteban, Mari Luz. 2017). Gutxi izan dira, ordea, beren burua feministatzat duten antolakunde mistoak.

Gainera, osaera mistoa duten eragileetan, parte hartzearen desoreka nabarmena ageri ohi da ezaguna den 24 orduko militantzia ereduagatik. Hegemonikoki 24 orduko militantzia ulertu den moduan, jarduera politikoari are eta denbora gehien eskaintzean datza. Kontuan hartuta andrazkoek ordaindutako lanaz gain zaintza lanak eta lan erreproduktiboak egiten dituztela oraindik ere (sexu-genero sistema heteropatriarkalak ala egotzita), sarritan ez dira haien ekarpenak kontuan hartzen. Batetik, jarduera militanteak bat egiten du askotan zaintzarako lanei eskaintako orduekin (demagun arratsaldeetan lanaren ostean, larunbat goizetan...). Bestalde, militantziari denbora gehien eskaintzen dion horrek jasotzen du taldean errekonozimendua eta erabakitzeko ahalmen handiagoa. Hala, Joxemi Zumalabek denboraren erabileraren eta parte-hartzeko eta erabakitzeko boterearen ahalmenaren inguruko hausnarketa jarri du mahai gainean:

“Denbora urria den aroan, beraz, parte hartze politikoari denbora gehien eskaintzen duen horrek botere gehiago dauka, prestigio gehiago eta erabakitzeko ahalmen handiago batzuetan. (...) sarri erritmo hau beste kideekiko gailentzea/inposatzea eragiten du. Berriz ere, bizi erritmoak alde batera utziz”. (Zumalabe, F. 2014: 29)

Lan erreproduktibo zein zaintza lanak egin ohi dituzten militanteek zailago izaten dute taldean ekarpena egin eta militantzia erritmo hori jarraitzea, eta sexu-genero sistemaren banaketa heteropatriarkala medio, andrazkoak izan ohi dira, oraindik ere horiek egiten dituztenak. Lan feminizatu horien banaketa egin ezean, beraz, emakume militanteen parte hartzea ere, urriagoa, eta boterez ahulagoa izango da. Era berean, taldean bertan lan ordu horiek kontuan ez badira hartzen, ekintza eta bileretara azalduko diren gehiengoak gizonezkoa izango da, eta horrela, emakumeen parte hartzearen presentziak txikia izaten jarraituko du.

Aipagarria da, era berean, feminismoa lantzen den erakunde mistoetan, eta batik batik maskulinitate berrien inguruan hausnartzen aritu diren talde horietan, zein nolako posizio aldaketa egin duten gizonezkoek. Jokin Azpiaturen ustetan (2015), gizonek feminismoaren alde hartutako jarrera, batik batik presio etiko eta moralagatik da. Horrela, haien diskurtsoa (eta ez jarduna) moldatzera beharturik daude gizonezko kideak, batik batik feminismoaren aldeko hautua egin duten taldeetan. Are gehiago,

Azpiazuk azpimarratzen du aldaketa diskurtsiboa gertatu dela, feminismoaren lanketa gizonen artean ere “onuragarria” dela esanez. Boterearen inguruko hausnarketak bultzatzen direnez, guztion ongizatea bilatzen delako. Zalantzarik gabe, baieztapen horrek interpretazio ugari eduki ditzake, eta feminismoa lantzen duen antolakunde batean gizonak diskurtsiboki nola kokatzen diren eta haien praktikak nola eraldatzen dituzten ere ikusi beharko litzateke.

Bestalde, ez da ohikoa izan feminismoa militantzia feministen eremuetatik at lantzea. Egun ordea, autore askok baieztatzen duten moduan, ia beharrezkoa bilakatu da ezker mugimendu eta alderdiek euren burua feministatzat identifikatzea (Martinez, Tania. 2015). Urrats handia egin zuen Ernaik, esaterako, feminismoa independentzia eta sozialismoaren pare aldarrikatzen dituen ezker abertzalearen lehen gazte antolakundea izanik. Aldi berean Euskal Herriko mugimendu feminista indartsu egotea, eta politika egiteko era berriak eta kontra-hegemonikoak barneratzeak, gainera, politika egiteko espazio berriak zabaltzen ditu gazte antolakundearengan. Aurrerago ikusiko dugun moduan, hori izan liteke feminismoa aldarrikapen nagusietako baten gisa jasotzearen arrazoia.

Ezin ukatukoa da Ernaik aldarrikapen feminista egin duela haren lehen lau urteetan. Gaia bereziki lantzeko lantalde bat ere osatu du, gainera. Ordea, Tania Martinezek (2015) ohartarazten du aldarrikapen hutsak eta lan talde espezializatuak sortzeak arriskuak ekar ditzakeela; batetik, feminismoaren lanketa osoa talde horiengan delegatzen delako; eta hortaz ez delako borroka horrekiko kolektibo osoaren atxikimendua lortzen, eta bestetik, taldearen gainkarga suposa dezakeelako. Bestetik, gainera, feminismoa aldarrikapentzat hartzeak ez du esan nahi militantzia eredu automatikoki aldatzen denik; eta hortaz, arestian aipatutako militantzia eredu hegemonikoa den molde maskulino hori ezbaian jartzen denik. Hain zuzen ere, interesgarria da une honetan lerrootara ekartzea Silvia Pirisek identitate feminista jasotzearen erronkaz esaten duena:

“Feminismoak eztabaidaren erdian ipintzen du gizon eta emakumeon arteko botere harremana, ezberdintasun sozialak,, pribilegioak eta hori iraunarazten duen egitura sozial, ekonomiko eta politikoa. Baina, batez ere pertsonala politizatzen du (...) eta, gainera, zeharkatu egiten gaitu; hori da feminismoaren potentzialitate handienetarikoa, baina baita bere konplexutasunik handiena ere; parte garen sistemari eraso egiten baitiogu. Zentzu honetan, iraultza ez da kanpoan gertatzen ari den zerbait, geure identitate, harreman eta bizitza propioak eraikitzean hasten da”. (Piris, Silvia. 2015)

Antolakunde misto batean feminismoa borroka ildo gisa identifikatzeak beraz, Pirisek eta Martinezek aipatzen dituzten arrisku guzti horiek hartzea dakar. Maila diskurtsiboan bai, baina militantzia ereduetan eta kolektiboko kideen arteko botere harremanetan eragitea zailago izan ohi delako. Ikerketa honen xedea, hain zuzen ere, Ernai gazte antolakundeak kideengan ikuspegi feminista batetik eragin duen jakitea izango da. Dena den, garrantzitsua da kokapen teoriko bat egiten ari garen heinean, kontuan hartzea zenbait autorek esaten dutena emakumeek herri mugimenduetan duten parte hartze politikoaren inguruan. Izan ere, mugimendu sozialek politika egiteko eredu eta espazio berriak ireki arren; zein da, ikerketetan batzuen arabera, kolektibo horietan emakumeek duten erabakimen eta ekintza gaitasuna?

2.2.1) Emakumeak mugimendu sozialetan

Herri mugimenduen inguruko ikerketak ugariak izan arren, emakumeek mugimendu sozialetan duten parte hartze politikoaren inguruko ikerketak edo genero ikuspegitik herri mugimenduak aztertzen dituzten lanak berriki hasi dira argitaratzen, azken hamar urteotan. Euskal Herriko eremuari dagokionez, berriz, Pili Alvarezek osatutako lana da ezagunena: *“Relaciones de género y cultura en los gaztetxes (Alvarez, Pili. 2012):* gaztetxeak eremu autogestionatu, antolakuntza eredu ez hegemoniko eta sistema kapitalista patriarkatik “askatutako” eremu gisa azaldu ohi zaizkigu, eta autoreak, ikuspegi feministatik, talde horietan gertatzen diren botere harremanen eta genero desoreken berri ematen du bertan. Ikerlariak aitortzen du gutxi direla gai horren inguruan diharduten lanak. Asko ez izan arren, ordea, denek baieztatzen dute eredu ez hegemonikoa bultzatzen duten eta nortasun eraldatzailea duten mugimendu hauek ere erreproduzitu egiten dutela sistema patriarkala:

“Onartu behar dugun lehen kontua da antolakunde misto eraldatzaileak: mugimendu sozialak, alderdi politikoak, sindikatuak... tradizionalki etsaiaren eremua izan direla emakumeen parte hartzearentzat (...) emakumeek oztopo espezifiko asko gainditu behar izaten dituzte erabakigune eta parte hartzerako espazioetan egon ahal izateko; are gehiago ikuspegi feminista eta kritikoa izanda”. (Piris, Silvia. 2015).

Lehen esan bezala, herri mugimenduek politikarako espazio eta eredu berriak jorratu ohi dituzte. Ondorioz, patriarkatuaren eta sexu-genero ezberdintasunaren gaineko kontzientzia handiagoa dago orohar horrelako taldeetan. Ordea, kide emakumeen parte hartzea espazio publikoko politika formaletik urrundu ohi izaten da, parte hartze puntualeragora eta atzeguardiara mugatuz (Alvarez, Pili. 2012). Lan horiek gainera, espazio publikoan egiten ez direnez, herri mugimenduak gauzatzen dituzten jardunetan hierarkikoki maila baxuagoan ageri ohi dira, eta aintzatespen

gutxiago izaten dute gizonezkoek eremu publikoan egiten dituzten lanak baino. Ikusgarritasun faltak ekartzen du, bortxaz hala ez izan arren, emakumeek mugimendu sozialetan duten parte hartze kuantitatiboa gizonezkoena baino txikiagoa dela uste izatea (Amurrio, Mila; Larrinaga, Ane 2013). Kontuz, erreferentzia hau ez duzu bibliografian jaso

Kide kopuruari erreparatuz taldearen osaera parekoa izan arren, kontuan hartu behar da parte hartze horren nolakotasuna ere. Sexu-genero rolen ikasketa prozesuagatik, ezberdina da sozializazioa emakume eta gizonetan; bati eta bestari egotzitako baloreak agerian gelditzen dira mugimendu sozialetako parte hartzean ere. Emakumeek gutxiago parte hartzen dute, eta, gainera, sarri exijentzia maila handiagoa eskatzen zaie andrazkoei, eta gizonen baino konpromiso handiagoa erakutsi behar izaten dute taldean onartuak izateko. Emakumeek taldearen partetik onarpena izateko erakutsi beharreko konpromiso gehigarri hori erabat lotua dago, lehenago ere azaldu den moduan, militantzia ereduak batik bat (neutroak direla uste arren) maskulinoak direnaren ideiarekin. Adibide argia ematen du Alvarezek ikerketan gaztetxeetako asanbladetakoko parte hartzea ikertzen ari dela. Gaztetxeko asanbladetan andrazko parte hartzaileek ustezko baieztapenak egiten dituzte; txanda errazago galtzen dute eta tonu baxuagoan hitz egiten dute. Gizonen parte hartzea kategorikoagoa izan ohi da eta tonu altuan eztabaidatu ohi dute. Ondorioz, emakume kide askok rol asimilazio berri bat egiten dute eta horrelako espazioetan maskulinizatzeko joera izaten dute, kontuan har ditzaten. Arazoak, ordea, bere horretan iraungo du, izan ere eredu militanteak androzentrista izaten jarraituko du, dena den (Alvarez, Pili 2012).

Taldekideten arteko botere harremanekin amaitzeko, beraz, lehen gakoa da antolakuntza eta parte hartze ereduaren inguruan hausnartu eta, hala behar izanez gero, horiek aldatzea. Arestian aipatu dugu mugimendu sozialek antolaketa eredu anitz izan ohi dutela. Horri erreparatu behar zaio, esate baterako, emakumeek kolektiboan duten parte hartzea aztertzeko. Ikerketarako hau egiteko ere Ernaiko antolakuntza-maila ezberdinetan biltzen diren emakume militante feministekin elkartzeko gara. Aurrerago ikusiko dugun moduan Ernaik berak lau urteotan egin ditu horren inguruko hausnarketak eta zenbait mekanismo ere proposatu ditu militantzia eredu iraultzeko.

Honenbestez, esan genezake, herri mugimenduetan ere, nahiz eta politikarako beste eremu batzuk zabaldu eta eraldaketa eta parte hartzerako beste eredu batzuk proposatu, sexu-genero sistemaren araberrako desberdintasunak gertatzen direla gizon eta emakumeen parte hartze politikoan. Are gehiago norberaren baitan erabat naturalizatua dagoen dominazio sistema izanik, zailago bilakatzen da horren aurka ere

borrokatu eta taldean bertan lan egiteko ereduen inguruko hausnarketa egitea. Era berean, orain arteko ikerketei erreparatuta, feminismoa aldarri hartzeak ez du bortxaz ekartzen militantzia eredia feminista (parekidea bederen). Horregatik, ikerketa honetan Ernairen jarduera feminista aztertu eta militantzia eredian zein nolako eragina eduki duen ere aztertuko dugu. Ernai, ordea, Ezker Abertzalearen baitan kokatua dagoen gazte antolakundea da; are gehiago LAB sindikatuarekin eta Sortu alderdi politikoarekin batera osatzen da, egun, mugimendua. Ondorioz, ezinbestekoa da labor azaltzea Ezker Abertzalean feminismoak eduki duen bilakaera, Ernairen apustua ulertu eta aztertu ahal izateko.

3) TESTUINGURUA.

3,1 FEMINISMOA EZKER ABERTZALEAN

Ernai gazte antolakundeak Ezker Abertzalearen ia 60 urteetan feminismoaren aldarria lehen lerroan jarri arren, egia da alde zurreratik ere mugimenduaren barnean prozesu feministak egin izan direla eta kolektiboaren barnean talde feministak kokatu izan direla. Horregatik, interesgarria da Ezker Abertzalearen baitan feminismoak eduki duen bilakaera aztertzea, era berean, mugimenduan orain arte egon diren lau gazte antolakundeek (Jarrai, Haika, Segi, Ernai-Aitzina) gaia zein intentsitatean landu duten erreparatzea ere interesgarria da.

Ezker Abertzalearen lehen urteetan (Euskadi Ta Askatasuna ETArekin hasierarekin lotzen badugu, 1958tik aurrera), ez zen feminismoaren edo emakumeen eskubideen aldeko aldarrik egin. Are gehiago, ikuspegi oso esentzialista zuen ETAk eta emakumeak euskal kulturaren gordailutzat zituen (Ernai, 2015). 1963ko Bigarren Asanbladara arte, ez zen emakumerik azaldu, eta orduko hortan bi izan ziren parte hartu zuten andrazko kideak. 1965ko maiatzekoa da, hain zuzen emakumeen zapalkuntza espezifikuari erreferentzia egiten dion lehen artikulua. Zutik! Buletinean argitaratutako artikulua batean emakumeek bizi zuten zapalketaren berri eman zuten eta errotiko aldaketa bat behar zela aldarrikatu zuten.

Lehenago ere aipatu moduan, Ipar Euskal Herriko emakume abertzaleak izan ziren emakumeen eskubideen aldeko borroka lehen lerroan jarri zuten aitzindariak. 60ko Hamarkada amaieran eman zioten hasiera lanketari, eta 1974ean sortu zen Emazteak Iraultzan taldea; jendarte eta nazio askapenari emakumeen askapenaren aldarria gehitu zion kolektiboa. Hego Euskal Herrian, berriz, aipagarria da 1978an Koordinadora Abertzale Sozialista KASeko Emakumeak antolakundea sortu zela (KAS

Emakumeak). Horrela, 1975ean sortu zen koordinadoraren helburu laukoitzari (Euskadi independentea sozialista, batua eta euskalduna), ez *patriarkala* gehitu zioten (Dañobeitia, Olatz. 2016). 1984an, Ipar Euskal Herrian Aizan sortu zen; emakume sozialista eta independentistaz osatutako erakundea. Ez zegoen KASen barruan kokatuta baina lotura politiko handia zuten, eta, horregatik koordinadorak eta talde feministak aldarrikapen txosten bateratua argitaratu zuten 1984ean. 1987Rako, berriz, KAS barnean erakunde feminista autonomoa sortzeko prozesua jarri zen martxan; Egizanen sorrera izango zena. Talde honen arabera sozialismoa zen emakumeen zapalkuntzaz askatzeko alternatiba. Egizanek 2000ko hamarkadan utzi zion jarduteari. Eta erronka berdinarekin, baina ikuspegi ezberdin batetik, euskal emakumeen zapalkuntza hirukoitzaren arazoari erantzuna ematen dion Bilgune Feminista sortu zen 2002ko urtean.

Ezker Abertzalearen baitan feminismoa lantzen duten taldeak egoteaz gain, azken bi hamarkadetan mugimenduak egin izan ditu barne prozesuak borroka feminista txertatzeko. Hain zuzen ere, 2003an argitaratu zuen Ezker Abertzaleak *Ezker Abertzale feministarantz* izeneko txostena; mugimendu osoak printzipio feministak barneratzeko. Ikerketa itxurako dokumentuak oinarrian ondorengo aldagaiak hartu zituen kontuan: barne antolakuntza, feminismoarekiko pertzepzioak eta jarrera sexistak. Bertan azaltzen da urrats garrantzitsu bat: *“Ezker abertzalearen proiektu estrategikoak, -independetzia eta sozialismoa-, integrala izan behar du, beraz feminista* (Ezker Abertzalea. 2003). Orduetik beraz, aldatu egiten da ulerkerak: emakumeen zapalkuntzarekin amaitzeko sozialismoa beharrezko izatetik, sozialismoa balio feminista gisa ulertzerara igarotzen da; urrats ideologiko adierazgarria (Dañobeitia, Olatz. 2016). Orduetik prozesu feminista iraunkorrean sartu da Ezker Abertzalea eta Sortuk proiektu politikoaren azalpenean feminismoa gehituta amaitu zen. Publikoki, ordea, Ernai gazte antolakundea izan da ildo feminista independentzia eta sozialismoaren pare jarri dituen lehen kolektiboa.

Ezker Abertzalearen barnean kokatutako gainontzeko kolektiboek ere, egin dute, hein batean lanketa feministarantz hurbilketa, baina denboran asko luzatu izan da sarri asko. LABek, esaterako, 1996an sortu zuen Emakume Idazkaritza eta orduetik apostua egin du andrazkoek goi karguetan eta publikora begirako jardunetan presentzia izan dezaten. ETAk, berriz, emakumeen askapenari buruzko gogoeta publiko gutxi plazaratu ditu; salbuespen gisa 2016ko agiri batean gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna aldarrikatu zuen (Dañobeitia, Olatz. 2016). EPPK. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere erreferentzia txikia egin dio borroka feministari;

salbuespenak salbuespen (2005ean Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herriratzean kaleratu zuten). Hala ere, azken urteotan kartzelak emakumeengan duen eraginaz egindako ikerketen harira, ugaritu egin dira presoek kolektiboak eta euskal presoek eskubideen aldeko taldeek egiten dituzten erreferentzia feministak. Horren adibide da, esate baterako, 2016ko abenduan Kalera Kalera dinamika kolektiboko preso ohi emakumeen biltzarra egin izana Usurbilen.

Ernai jomugan dugula, interesgarria da, amaitzeko, Ezker Abertzalearen baitan kokatu diren gainontzeko gazte antolakundeek ibilbide feminista nolakoa izan den errepasatzea:

Jarrai

1979an sortu zen; KAS koordinadorako gazte erakunde gisa. IV. eta V. Kongresua bitartean (1989-1992) erabaki zuen Ezker Abertzalearen gazte erakundea izateari utzi eta gazte erakunde ezkertiar eta abertzale bilakatzea. Gazte mugimenduaren autonomia eta aniztasuna kontuan harturik, borroka horren baitan kokatu zuten feminismoa. Era berean aipagarria da 90ko Hamarkadan emakume gazte feministen talde autonomoek eta Jarraik edukitako harremana, eta militante feministak Jarraiko parte izan zirela (Dañobeitia, Olatz. 2016)

Haika

Hego Euskal Herrian aktibo zegoen Jarraik 20 urte betetzean eta Ipar Euskal Herriko Gazteria antolakundearen 5. Urteurrenean, bi erakundeak batu eta nazio mailako gazte antolakundea sortzea hobetsi zuten 2000ko apirilaren 22an.. Ibilbide laburra izanda, ez zuen feminismoa borroka ildo nagusi gisa ezarri, ezta *Amaiur* barne prozesuan gara hartako egoera sozioekonomiko eta soziopolitikoaren azterketarako aldagai gisa proposatu.. 2001. urtean ilegalizatu zuen Baltasar Garzonek antolakundea, eta bere hortan amaitu zen kolektiboaren ibilbidea.

Segi

Haika gazte antolakundearen ilegalizazioaren ostean, 2001. urtean haren jarraipen gisa sortu zen Segi gazte antolakundea. Ibilbide korapilatsua eduki zuen kolektiboak, izan ere Espainian ilegal bilakatu zen, 2002tik aurrera, Baltasar Garzonen aginduz. Hego Euskal Herrian jarduera klandestino eta Ipar Euskal Herrian modu legalean, kanpaina ugari jarri zituen martxan 2012ko urtean, barne prozesu baten ondoren disolbatzea erabaki zuen arte. Ideologiari dagokionez, 10 urteko ibilbidean aldaketa

soma daiteke Segiren txostenei erreparatuta. Hasiera batean ipar orratz zituen Independentzia eta Sozialismoa, Aldarri horri zazpi balio erantsi zizkieten: antolakunde nazionala, independentista, euskalduna, sozialista, iraultzailea, gaztea eta anitza zen Segi sortzean. 2009An Segik berak argitaratutako *Zer gara?* Dokumentuan berriz, beste balio batzuk gehitzen dizkiote antolakundeari: Orduetik amaierararte Segi independentista, iraultzailea, sozialista, euskalduna eta feminista dela aldarrikatu zuen gazteen kolektiboak.

Aitzina

Segiren amaierarekin, Ezker Abertzaleko gazteek barne prozesu bati bide eman zioten. Orduan, "*Orain dun/k tenorea*" dinamika jarri zen abian Ipar Euskal Herrian. Prozesu horren ostean, ikuspegi nazionala, baina iparraldeko antolaketa duen Aitzina gazte antolakundeak sortu zen 2013ko azaroaren 2an. Egun puntaletan feminismoa aldarri ian arren (martxoaren 8a, azaroaren 25a...). Dinamika propiorik ez du abian jarri eta ez da lehentasunezko borroka ildo izan.

Joan den 2016ko uztaileko Batzar Orokorraren ostean, feminismoari bereziki heltzeko apustua egin zen, euskararen aldeko borrokarekin batera. Horrela *talde tematikoak* deituriko bi lan talde berri sortu dira Aitzinaren barnean: talde feminista eta euskara taldea. Talde feministak 2016ko irailean egin zuen aurkezpena, eta orduetik, deialdiak egiteaz gain *Asteburu ubela* deituriko formakuntza asteburu bat ere antolatu du.

Teoriatik praktikara ordea, Ezker Abertzaleak amildegia izan du batzuetan, eta ez da koherentea izan kanpora emandako mezu feministaren eta barne antolaketa eta ereduaren artean. Hain zuzen ere, feminismoa norbera zeharkatzen duen borroka izateak zaildu egiten du sarri barne korapilo eta desorekak lantzea. Ikerketa honen bitartez, Ernai gazte antolakundeak, diskurtsiboki egindako aldaketak militantzia eremuan eragina izan duen edo ez aztertzea izango da, hain zuzen ere.

3.2) ERNAIREN LEHEN LAU URTEAK

Emakumeek politika arloan duten parte hartzearen inguruko berrikuspen teorikoa eginda, eta andrazkoek herri mugimenduetan ere politikoki eragiteko dituzten oztopoez jabetuta, Ernaik berak lau urteko ibilbidean zein nolako lanketa feminista jorratu duen, eta horrek ustez naturalizatuta dagoen militantzia eredu maskulinoa eraldatzea lortu duen aztertzea dagokio ikerketa honi. Horretarako, beraz, testuinguruan kokatu behar dugu Ernai. Batetik, maila orokorrean zein nolako borroka ildoak jorratu dituen ikusteko, eta haren ideologia politikoa nolakoa den zehazteko; eta

bestetik, *Urrats Feminista* delakoa aurrera nola eraman duten ikusteko. Zentzu horretan, borroka feministari dagokionez egindako kanpainak, barne prozesuak eta bestelako dinamikak ekarriko dira paperera; besteak beste prozesua militante guztiekin lantzeko sortutako Kaierak.

3.1.1) Ezker Abertzalearen gazte antolakunde berria: Ernai

Ernai Ezker Abertzalearen baitan kokatzen den gazte antolakunde independentista, sozialista, feminista eta iraultzailea da. Sei hilabeteko *Zukgua* prozesu eratzaillearen ostean, 2013ko martxoaren 2an eman zen argitara, Lizarran egindako ekitaldi batean. Ordutik, lan ildo jarraitu izan ditu sozialismoa, nazio eraikuntza eta feminismoa. Hiru bide horietan berriz, anitzak izan dira jorrotutako lanketak: prekarietatea, etxebizitza, sexu askapena, gatazkaren konponbidea... Barnera begira ere, formakuntzarako saioak prestatu eta euskarriak helarazi dizkie haren militanteei. Lau urte hauetan gehien landu den arloa izan da *Urrats Feminista*, eta baita atal sozioekonomikoari dagokiona ere (Lan eskubideen gida, Zer da TTIP?, Gazteak, Lana eta Prekarieatea., Pentsamendu Kritikoa...).. Eratze prozesutik jarri du antolakundeak militantzia ereduaren gaineko hausnarketa erdigunean, arestian aipatu moduan herri mugimendu berri deiturikoek egin izan duten moduan. Zentzu horretan, esan daiteke praktika kontra-hegemonikoak sortu dituztela, bai diskurtsoari dagokionez eta baita ekintza motari dagokionez. Ohikoa den eredu militante maskulinizatutik apur bat urruntzea lortu da, beraz, egindako ekintza ugaritan. Horren adibide da, esate baterako, 2014ko maiatzaren 3an gazte antolakundean antolatutako *Manifestakzioa*. Protestarako ekintza eredu ezberdinak proposatu zituen bertan kolektiboak; hala nola: arratoiak multinazional handietara sartzeara, desobedientzia eginez eserialdia egitea, simaurra banketxe handietara botatzea, dantza, eta abar.

LAB eta Sorturekin batera, egun Ezker Abertzalearen hirugarren hanka da Ernai. Horregatik, eredu kontra-hegemonikoak hartu bai, baina ezin ahaztu daiteke Ernai alderdi politiko eta sindikatu bati erabat loturik doan gazte antolakunde delarik. Horri dagokio, hein batean haren antolaketa eredu hierarkizatu eta zentralizatua. Lekuan lekuko erabakigune eta botereguneak bultzatu diren arren (eskualdeak, kasu). Oraindik ere nabarmena da lanketa nazionales eta egiturak duten garrantzia. Horri erreparatu beharko zaio, hain zuzen ere ikerketa osatzen den heinean. Are gehiago, Ezker Abertzaleak hartutako erabakiak eta hautu estrategikoak bere egin ditu Ernaik *Abian* azken prozesuaren ostean, eta sortzetik lau urtera, egindako lanaren ebaluaketa egiteko eta datozen urteetako ibilbide estrategikoa definitzeko Iñurritegia Kongresua

abian jarri zuen urtarrilean. Zirtaka dokumentua oinarri harturik egingo dugu egun Ernai denaren argazki orokorra.

Izaera ideologikoa eta borroka ildoak

Arestian aipatutako nortasun independentista, sozialista, feminista eta iraultzaileak bere gain hartzen ditu berriz ere antolakundeak baina, oraingoan, zapalkuntza laukoitzari erantzun gisa identifikatzen du bere burua kolektiboak : nazio zapalkuntza, klase zapalkuntza, genero zapalkuntza; eta berria dena, helduek eragindakoa (Ernai, 2017). Estrategiaren ardatza da nazio eraikuntza. Horri atxikirik identifikatu duten “fase politiko berrirako” lau erronka proposatu dituzte:

“1) Sistema kapitalista heteropatriarkal espainiarrak eragindako zapalkuntzen hegemoniari aurre egin eta nazio eraikuntzari (eta bere fase garatuenean estatugintzari) ekarpena egingo dion kontraboterea artikulatzea; 2) Pedagogia independentistarako bitartekoak sortzea; 3) Gazteria independentista artikulatzea; eta 4) Gazte Antolakundea berregituratu eta indartzea. Proiektu politikoaren aldeko borroka ideologikoa eta agendan eragiteko gaitasuna indartzea. (Ernai, 2017)”

Horretaz gain, gazteek gatazkaren konponbidearen inguruko foroetan eta heziguneetan eduki behar duten presentzia ere azpimarratzen du ponentziak..

Antolaketa eredua

Antolakundeak jardun dezentralizatu eduki beharko lukeela aldarrikatzen eta militantzia ereduaren gaineko hausnarketa beharrezkoa dela jaso. Are gehiago, militantzia ereduaren sostengarritasunaren gaineko eta funtzionamendu feministaren inguruko atal berezituak ditu dokumentuak; bertan agertzen da, gainera, Ernaiko lanketa politikoaren zutabe garrantzitsu izango direla emakume ahaldundu eta feministak; gainera *beto feministaren* proposamena ere egiten da idazkian.. Dena den, Ernaik antolaketa eredu jakin bat proposatzen du Zirtaka ponentzian: Nazio mailako taldea (Hego Euskal Herria), herrialdeko taldea (probintziak), eskualde-hiriburuak, eta herriak.

Amaitzeko barnera begirako zenbait prozesu egingo direla ere oroitarazten du kolektiboak: prozesu feministarekin aurrera egin, prozesu internazionalista gauzatu eta formakuntza eta euskara lantaldeak sustatuko ditu.

3.3) Feminismoa eta Ernai; lau urteko prozesua.

Ernaik izaera feminista aldarrikatu zuenetik lau urte pasa ostean, interesgarria da lan honetarako egindako prozesuaren nondik norakoa jasotzea. Lehen unetik, feminismoaren aldarria diskurtsiboa soilik ez, militantzia ereduan eta antolaketan eragina izango zuena dela baieztatu du kolektiboak. Horregatik, datorren bilan hau egiterako unean, batetik, kontuan hartuko ditugu kanpora begira egindako kanpainak (karteldegia, bideoak, egun puntaletako lanketak eta baita gazte topaketetan hartutako neurriak) eta barnera begira egindako formakuntza. Horretan datza hain zuzen ere 2013ko udazkenean Ernaik argitara emandako *Urrats Feminista*.

Kanpora begirako lana eta lanketa diskurtsiboa

Feminismoa borroka ildo gisa definitzeak aldaketak ekarri ditu ezinbestean errealitatearen azterketatik hasi eta sistema heteropatriarkal kapitalistaren aurkako borrokan. Horregatik, ugari izan dira, lau urtetan, Ernaik proposatutako lanketak. Aipagarria da, batik bat, lau urteetan zehar azaroaren 25ean (Emakumeen aurkako biolentziaren kontrako eguna), martxoaren 8an (Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna) eta ekainaren 28an (Sexu askapenaren nazioarteko eguna) egin dituzten kanpainak. Ernia markak gisa hartu izan du *burujabetza* kontzeptua. Horregatik, lanketa feministarekin lotura duten diskurtsoek ere kutsu hori hartu izan dute. Burujabetza sistema heteropatriarkalaren aurka, burujabetza nork bere gorputza nahi bezala definitzeko, burujabetza erasoen aurrean, eta ahaldutzea sexu eraso eta eraso homofobikoen aurrean autodefentsa erabiltzeko.

Hori dela eta deigarria da Ernaik bere karteldegian (egun espezifiko hauei dagokionez) emakume eta gorputz ez normatiboak “gordinki” eta indartsu nola azaltzen dituen (ikus kartelak gehigarrietan). Emakumeak eta gorputz ez normatiboak izan ohi dira protagonista eta mezu indartsuak eraman ohi dituzte: “*Autodefentsa feminista! Matxiruloak akatu!; Eman sua patriarkatuari!; Neska gazteok iraultzarako prest!*” Eta azken hiru urteetan ekainaren 28rako erabili duten mark: “*Zernahi gara*”. Gainera, diskurtso hutsetik praktikarako jauzia eta euskal gazteekin lotura egiteko asmoz, 2016ko ekainean Zernahi gara argazki lehiaketa ere jarri zuten abian.

Bestalde, lanketa feminista hutsetik aterata ere, agerikoa da eremu publikora borroka feminista eta emakumeen eta gorputz ez normatiboen irudiak ere eraman dituela Ernaik kartelen eta diskurtsoen bitartez. Horren adibide da, lehen kanpaina handian (*Batera egingo dugu!*) andrazkoak izan zirela protagonista (gehigarrietan

atxikituta). Gainera aski ongi zaindu dute bozeramailletza, eta orohar emakume eta gizonek hartu dute publikoarekin harremanetan egoteko lana. Dena den, aztertzekoa litzateke zein gorputz eredu diren Ernairen gazteak errepresentatzen dituzten irudiak, eta bozeramailletzaz gain, emakumeek benetako eskuhartzea duten eguneroko lanean. Iruditeriaren eraldaketa horrekin militantzia eredu maskulinizatua aldatzen ari dela iradoki du Zuriñe Rodriguez ikerlariak:

“Pausoz-pauso, borrokalari maskulino eta heterosexualaren iruditeria aldatzeko arrakalak sortzen ari dira. (...) beste iruditeria batzuk sartzen dira jokaleku politikoan. Hori, adibidez, Ernai gazte antolakundeak eginiko apustu diskurtsiboan ikus daiteke. Euren karteletan elementu berriak sartu dira indarrez. (...) -emakumearen esentzialtasuna ere hautsi da (...). Kartel horietan, feminismoaren herentzia zuzena eta autoritatea ikus daitezke. (Rodriguez, Zuriñe 2016)”

Hala ere, diskurtso aldaketa nahikoa ez dela jakitun, Ernai gazte antolakundeak sortze urte berean ekin zion *Urrats feminista* delako prozesuari. Helburua militanteengan feminismoa beharrezko borroka ildo gisa txertatzea, formakuntza feminista eskaintzea, eta militantzia zein antolaketa ereduan aldaketak eragitea izan da.

Urrats feminista

Jardunean aritu den lau urteetan, prozesu feminista egin du gazte antolakundeak barnera begira, arestian aipatu ditugun helburuak lortzeko. Eredu militante maskulinizatu batetik feminismoa ardatz izango duen antolakunde baterako bidea egiteak, epe luzerako estrategia bat abian jartzea ekarri du; lekuan lekuko testuingurua eta militanteen nolakotasuna ezberdinak delako. Horregatik, lau urte hauetan *Kaiera* feminista deituriko hiru txosten kaleratu ditu kolektiboak. Ekainean bertan argitaratuko du prozesuaren lehen zikloa itxiko duen laugarrena; ikerketa egiteko zirriborra erabili dut. Oinarrizko kontzeptuetatik abiatu eta feminismoaren ibilbide historikoa egin du antolakundeak; militanteak euren jardunaren inguruko hausnarketara bultzatuz.

Hiru kaierek ezaugarri berak dituzte: alde batetik, formakuntzarako testuak jasotzen dituzte. Horretaz gain, militanteen parte hartze aktiboa sustatu asmoz, tailerrak proposatzen dituzte militante-taldean egiteko. Gainera, oinarrizko hiztegia eta bibliografia ere badute txostenek. Batik bat maila lokalean eta eskualdean landu dira koadernoak, lekuan lekuko beharrei moldatu ahal izateko. Kideak izan ohi dira, txandakatuz, tailerrak antolatzeko ardura hartzen dutenak. Ondorengoak dira landutako kaiarak: 1) Feminismoa bizi ereduen oinarri (feminismoaren oinarrizko

kontzeptuak lantzea izan zen helburua lehen kaiera honetan: sexu-genero sistema, patriarkatua eta kapitalismoa, eta alternatiba gisa praktika feminista); 2) Historiatik ikasten gure feminismoa zehazteko (teoria eta praktika feministan barrena ibilbide historikoa egiten du kaierak, antolakundearen nolakotasun feminista definitze aldera. Batez ere mendebaldeko proposamenak ekartzen ditu, baita Euskal Herrian eta Ezker Abertzalearen baitan feminismoak eduki duen bilakaera ere); 3) Pentsamendua eta praktika feministotik aztertzen (Feminismoa zehar lerro gisa praktika militantean zein norbanakoaren bizitzan lantzeko ildoak proposatzen dituzte. Hala nola, gorputza, harremanak, lana eta militantzia ereduak). Ekainean argitaratuko denak berriz, herrietako eta auzoetako taldeetan eragiteko helburua dauka. Horretarako, dinamika batzuen bitartez gizon eta emakumeen parte hartzea orekatua izan dadin zenbait tresna eta mekanismo proposatu eta adostuko dituzte.

4. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Ikerketa honetan metodologia ezberdinen uztarketaren edo integrazioaren aldeko apustua egin da. Ikerketari dagozkion ikergaldera eta helburuak ikusirik, metodologia kuantitatiboa eta parte hartzailea erabiltzea hobetsi da, beti ere, ikuspegi feminista batetik landuz,. Izan ere, ikerketa hau diagnosi bat ere badela esan genezake, hain zuzen Ernai gazte antolakundeak aurrera eramandako Urrats Feministak militanteengan eta egituragan izan duen eragina aztertzeko diagnosa. Horregatik, Callejo eta Viedmak (2005) proposatzen dute horrelako lanetarako egokia dela metodo anitzen uztarketa. Nolako integrazio maila? Bericat-en arabera, *konbinazioaren* maila erabiliko da ikerketa honetan. Hau da, batetik metodologia kualitatiboaren teknika ezagunak erabiliko dira; elkarrizketa sakona eta behaketa. Bestetik, berriz, ikertua den taldeari ongi moldatutako teknikak erabiliko dira; hala nola, taldeari egokitutako ebaluazio saio bat.

Arlo kualitatiboak, aukera emango digu informazio garrantzitsua jasotzeko. Ikerketa Ekintza Partehartzaileak, berriz, taldeari egokitutako metodologia diseinatzen lagunduko digu, eta baita, ikerketa prozesu osoan zehar antolakundearekin lanean jarraitzeko aukera eman ere. Horrela hiru teknikez osatutako metodologia egituratu da: batetik, herri bateko Ernairen bileraren behaketa egingo da. Bestetik, eskualde bereko kide bat elkarrizketatuko da, eta baita, maila nazionalean hasieratik Urrats Feministan lanean jardun diren beste bi kide ere. Amaitzeko, herri eta hiriaren perspektibak jaso ahal izateko, Donostiako ebaluazio saio baten prestatzaile eta behatzaile izan da

ikerlaria; saio horretan Ernairen prozesu feministak edukitako ibilbidearen inguruko hausnarketa egin da eta etorkizuneko erronkak definitzen hasi dira.

Begiradaren garrantzia.

Metodologiaren hautua ordea, ez da ausazkoa. Aitzitik, ikerketaren eta ikerlarien jarrera islatzen da aukeraketa horretan. Iker objektua perspektiba ugartik landu liteke, eta modu batera edo bestera egin ikerketa, emaitza ezberdina izango da. Horregatik, hautu kualitatiboa egiterako unean, gogoan izango dugu metodologia honek gizarte fenomenoak era sakonago batean ezagutzeko aukera ematen duela (Juaristi, Patxi. 2003). Ezin ukatuzkoa da Ernai bera gizarte fenomeno denik; gazte antolakundea den heinean eta jendartearekiko etengabeko harremanean dagoenean. Era berean, lehen azaldu bezala, Ezker Abertzalearen baitan egin den prozesu feminista eraldaketa fenomeno bat ez da gazte antolakundearen prozesu feminista bera (begirada kronologiko batetik bederen). Eta hortaz, gizarte fenomeno batez ari gara Ernaien Urrats Feminista aztertzerako unean ere: horrela, behaketaren teknika eta elkarrizketa sakonak baliatuko dira taldearen barneko informazioa eskuratzeko; besteak beste, prozesuaren nolakotasuna eta kideen pertzepzioa jaso ahal izateko. Era berean, azpimarratu beharrekoa da metodologia parte hartzailea eta epistemologia feminista erabili izanaren arrazoia.

Izan ere, ikerketa egiterako unean presente egon da ikerketa parte hartzailea eta begirada feministatik eraikia izatea. Bai marko teorikoa definitzerako unean, baina, baita ikerketa bera aurrera eramaterako unean ere. Hala, epistemologia feministaz hitz egiten dugunean, ikerketa prozesu osoan zehar begiratzeko modu jakin batez ari gara; orain arteko teoria eta metodologia ezberdinen irakurketa kritikoa egingo duena, eta proposamen politiko feministak mahaigaineratuko dituen (Espinosa, Yuderski. 2014). Erabat lotua doa, beraz, Ikerketa Ekintza Parte hartzailearekin. Proposatutako metodologia ez baitu ikerlariak bere kabuz osatu. Aitzitik, taldearen ezaugarri bereziak kontuan hartuz, eta hasieratik taldearekin lan eginaz, metodologia proposamena egin zaio taldeari, hori aurrera eramateko. Lehenago aipatu moduan, baliabide urriak izanda, zaila da ehuneko ehunetan metodologia parte hartzailea erabiltzea. Hala ere, ahal izan den neurrian eutsi zaio hautu horri.

Esate baterako, ikerketaren planteamendua bera, ikerlariak proposatu arren, antolakundeko ezinegon konpartitu baten ondorio izan da. Hain zuzen ere, ikerketaren helburua bera diagnosi ahalik eta osatuena egitea da, antolakundeak bere esku izan

dezan eta etorkizunerako erronka berriak proposatu ditzan. Era berean, Dabilen Harriari Goroldiorik ez liburuan ageri diren bi ideia egin dira gure ikerketa honetan ere: “Amaierarik ez duen prozesu baten hasiera baino ez da, helburua etengabeko begirada autokritikoa garatzea baita”, eta: “Hasieratik gogoeta hau konpartitu eta kolektiboa izateko xedea eduki du” (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2012: 4). Ildo horretan ,eta fundazioak bera jasotzen duen moduan, garrantzitsua da Herri Mugimenduekin horizontaltasunean lan egitea; are gehiago, ikerketa honi dagokion moduan, sexu-genero artean egon daitezkeen botere-harremanez hitz egiten ari bagara eta militantzia ereduaren inguruko hausnarketa helburua bada.

Horrela ba, metodologia parte hartzaileak bide ematen du sektore gutxiagotu eta zapalduak ahaldundu eta antolatzeko (Martinez, Zesar. 2014). Kasu honetan, ikerlarien ustez azterketa hau egiteak, batetik, urrats feminista indartzen eta, beraz, emakume militanteen ahalduntzea gauzatzen lagundu dezake, eta bestetik, antolakundeari, talde gisa, kohesioa eta prozesuaren berrespenerako indarra emateko gaitasuna izan dezake. Izan ere, metodologia parte hartzailearen ezaugarrietako bat da ikerketa objektua prozesu horren subjektu aktibo bilakatzea (M. Zesar, 2014). Zentzu horretan , gogoratu beharra dago metodologiaren hautuan, eta orohar prozesu osoan zehar Ernairen lantalde feministarekin aritu garela lanean, ikerketa baliagarria izan dadin, aipatu moduan taldea berarentzat.

Militantzia ereduaren inguruko hausnarketa egiten ari den antolakundeari, beraz, aipatutako metodologia egoki moldatzen zaiola erabaki da, eta gainera, epistemologia feministatik landuko da, hain zuzen ere ikerketaren ildo nagusietakoa diren botere-harremanak zainduko direla iritzi da. Gainera, ikerketa hauei dagozkien helburuekin eta ikerketa ildoekin bat egiten duen metodologia da, lehenago aipatu moduan prozesu baten nolakotasuna aztertu nahi delako, eta hortaz, metodologia parte hartzailea eta kualitatiboa egokiak izan daitezkeelako, antolakundearen egituraren maila ezberdinetako eta lurraldeko leku ezberdinetako testigantzak jasotzeko aukera ematen duelako, eta horrela, analisiaren argazkia osatuagoa izango delako.

4.1) DISEINU TEKNIKOA

Lehenago azaldu moduan, ikerketa aurrera eramateko erabiliko diren teknikak oinarri kualitatiboa eta parte hartzailea izango dute. Era berean, ondorioak eta diskurtsoen analisia egiterakoan, Urrats Feministaren *Kaierak* esku artean izango ditugu, eta gainera, Ernairen jardunaren lau urtetan emakumeek publikoki izandako presentziaz hitz egiteko, bozeramaileak nor izan diren eta karteletan zein gorputz agertzen diren kontuan hartuko dira. Hala ere, Ikerketa egiterako unean bereziki hartu nahi izan dira kontuan antolakundeak kide feministak, Urrats Feminista aurrera eraman duten kideak eta herri eta hirietako talde militanteak. Beraz, diseinu egiterako unean, horiexek izango dira garrantzia edukiko duten teknikak: elkarrizketa sakona maila nazionalera (Hego Euskal Herrikoa da, baina, horrela deitzen diote) talde feministan Ernairen sorreratik egon diren bi kiderekin, elkarrizketa sakona Buruntzaldea eskualdeko kide feminista batekin, Donostia mailako ebaluazio saioa eta Hernaniko bilera bateko behaketa. Donostialdean oinarritua izan da ikerketa; Buruntzaldeko eskualdea eta Donostia hiria kontuan hartuz. Izan ere, Ernai gazte antolakundeak Hego Euskal Herria mailan lan egiten duenez, zaila izan da baliabide aldetik lurralde eta antolakunde osoari dagokion analisia egitea. Taula honen bitartez lurraldetasunari dagokionean Ernai gazte antolakundeak nolako organigrama duen ikusiko dugu. Maila nazionalaz gain, lau lurraldek antolaketa eredu bera jarraitzen dute. Berdez, markatuta azaltzen dira ikerketa egiteko erabilitako eremuak:

MAILA NAZIONALA	Gipuzkoa	Eskualdeak	Herriak
		(Guk Buruntzaldea)	(Guk Hernani)
		Hiriburua:	Auzoak
		Donostia	
	Araba	Eskualdeak	Herriak
		Hiriburua: Gasteiz	Auzoak
	Nafarroa	Eskualdeak	Herriak
		Hiriburua: Iruñea	Auzoak
	Bizkaia	Eskualdeak	Herriak
		Hiriburua: Bilbo	Auzoak

Taula 1. Iturria: Eduki propioa

4.1.1) Elkarrizketa sakona:

Sakoneko elkarrizketa informazioa lortu asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da (Juaristi, Patxi. 2003). Helburua, ikergai dugun fenomenoaren -kasu honetan Ernaien Urrats feministak militantzia ereduaren edukitako eragina- ulertzeko eta aztertze gakoak izan daitezkeen aldagaiak edo gertaerak ezagutzea. Horregatik, ikerketa honetan alde batetik, hasieratik eta lau urtetan zehar prozesuaren parte izan diren bi kideekin biltzeko hautua egin da. Haien giltzarri izan daitezkeen prozesuaren nolakotasunak eman ahal dituztelako. Era berean, eta begirada feminista aplikatuz, ezin dugu ahaztu herrietako militantzia islatu ote den ere aztertu nahi dela, eta horregatik, ardura (ustez) xumeagoa duen kidearengana, baina, egunerokotasunean urrats feminista abian jartzen duen horrengana jo dugu elkarrizketa egiterako unean. Kasu horretan, herriko militante izaten hasi, eta egun herrialdeko lantalde feministako arduraduna izango da. Beraz, lau urtetan bizitako prozesu guztiaren nondik norakoak jaso ahalko dira. Elkarrizketuei izena aldatuko diegu diskurtsoen analisia egiteko, eta hortaz deitura fiktizioekin egingo diegu erreferentzia. Talde dinamiketan parte hartu dutenek berriz P (Partaide) eta zenbaki bat izango dute, bakoitzari saioan egokitutakoaren arabera. Elkarrizketatua nor izango den definitzerako unean, hauek izan dira antolakundearekin hitz egin ostean adostutako aldagaiak:

a) Sexu-generoa

Lehenik, elkarrizketatutako hiru kideak emakumeak izango direla erabaki da. Bai maila nazionalera bi kideak eta baita herriko militantea bera ere, andrazkoak izateko hautua egin da. Arrazoia da, emakumeen ikusgarritasunaren inguruko lan bat dela honako hau, eta hortaz, zer esana eduki dezaketela. Gainera, antolakunde misto bat aurrera eramaten ari den prozesu feministaz hitz egiterako garaian, Ernaik berak baieztatzen du emakumeen ahalduntzea sustatu behar dela, eta horren ondorioz, andrazkoen parte hartze politikoa areagotu. Kontraesankorra izango litzateke (behintzat hasieran definitu diren helburuekiko) gizonezko kideei ahotsa ematea. Gainera, aipatu behar da beste espazio misto batzuk egon direla (ebaluazio saioa eta taldeko behaketa). Hortaz, espazio misto baten dinamiken berri ere jasoko dira gainontzeko tekniken bidez.

Era berean, maila ezberdinean bada ere, elkarrizketatutako kideak prozesu feministarekin atxikimendu handiko kideak direla aipatu behar da, eta modu batean edo bestean haien militantzia feminismoaren inguruan eraiki dute.

b) Eragin gunea

Prozesuaren inguruko azterketa holistikoagoa eta zintzoagoa egiterakoan, balioetsi egin da hierarkia maila ezberdinetako kideak elkarrizketatzea. Zentzu horretan ez da zalantzan jarri hasieratik mahai nazionaleko talde feministan parte hartu duten kideak elkarrizketatzea. Kasu honetan, bi izango dira, eta, gainera, balio erantsi gisa hasieratik lan taldean daude bi kideak. Horrek lau urteko begirada eskainiko dio ikerketari. Bestalde, herriko militante bat elkarrizketatuko dugu. Aipatu bezala, haren militantzia feminismoarekin lotu du erabat, eta garrantzitsua da herriko militante feminista baten begirada lanera ekartzea ere. Asmoa, maila nazionalean eta herrien artean dagoen arrakala apur bat murrizteaz gain, prozesuaren gaineko begirada zabalago bat izatea da. Baita herrietako militanteei ere ikusgarritasuna eman. Gainera, ikerketaren galderetako bat da hain zuzen ere, maila nazionalean egindako lanak herrietan zein nolako isla eduki duen aztertzea. Herriko kide horrek hain justu maila horretatik osatuko du diskurtsoa.

c) Militantzia prozesua

Azkenik, bigarren mailako aldagai gisa, antolakundean elkarrizketatu bakoitzak edukitako prozesua kontuan hartuko dugu. Bai ardurei dagokienez eduki duten (ala eduki ez duten) bilakaera edo kargari erreparatuz, eta baita haien izaera eta parte hartzearen garapena ere. Kasu honetan, jakin badakigu maila nazionalean diharduten militanteek hasieratik heldu diotela ardurari. Aldiz, herriko militantea, hasieratik Ernaiko kide izan arren, ez du ardurarik hartu joan den urterarte, kasu horretan garrantzitsua izango da bataren eta bestearen ikuspegia, eta baita edukitako garapena ere.

Bestalde, elkarrizketan beran definitu ahal izango da, solaskideek hala aipatzen badute, norbanako gisa edukitako bilakaera. Bai parte hartze politikoari dagokionez, ahalduntzeari dagokionez, bai ardura mailari dagokionez eta baita eduki duten ikusgarritasun publikoan ere.

Hiru aldagaiok kontuan hartuta, elkarrizketa sakonek gidoia eduki badute (ikus eranskinetan). Baina kualitatiboa den heinean, moldagarria da, eta beraz aldagaien arabera (batez ere azken aldagaiari erreferentzia eginez), elkarrizketaren unean bertan galdera berriak proposatu ahal izan zaizkie elkarrizketatuei. Proposatutako gidoia parekoa izan da bai maila nazionaleko lan taldeko kideentzat eta baita herriko militantearentzat ere. Dena den, galdera espezifikoak ere egingo zitzaizkion elkarrizketatu bakoitzari, berezitasunak eta prozesuaren bizipenaren nolakotasunak ahalik eta egokien jasotzeko.

4.1.2) Ebaluazio saioa Donostian:

Donostia hiriburua dela kontuan hartuta, interesgarria da bertako militanteek Urrats Feminista nola bizi izan duten, eta taldean aldaketarik nabaritu ahal den ikustea. Martxoko kongresuaren ostean, Donostiako taldeak prozesu feministaren inguruko lau urteren ebaluazio saioa zuela aprobetxatuz, hori landu eta saiora joatea erabaki nuen. Taldeak berak osatutako dinamika baten bitartez eraman da saioa aurrera, baina, ikerlariak ere proposatu ditu ebaluaketarako beste zenbait galdera eta gako. Batik bat Urrats Feministaren lau urteko balorazioa eta kaieren inguruan osatutako lanketa izango du ardatz saioak. Horretaz gain, etorkizuneko erronkak ere jaso dira taldearen bitartez. Horrela taldean osatutako eta taldeari egokitzen zaion bi orduko ebaluazio saio bat antolatu da. Taldearen osaerari dagokionez, aipatu behar da Donostiak, hiriburu izanda, hiriko marko bat duela osatuta. Horregatik, eta baita prozesu feminista mistoa izan delako; saioko kideak emakumeak eta gizonak izan dira, denak datorren 4. Kaiera Feministaren dinamizatzailerak izango direnak. Guztira bederatzikidek osatu dute mahaia:

- 1.- Dinamizatzailerak eta prozesu feministako kidea. Emakumea.
- 2.- Dinamizatzailerak eta prozesu feministako kidea. Gizonezkoa.
- 3.- Aktalaria eta Donostiako arduraduna. Emakumea
- 4.-Alzako kidea. Emakumea
- 5.- Añorgako kidea. Gizonezkoa
- 6.- Itxaurrondoko kidea. Emakumea.
- 7.- Alde Zaharreko kidea. Emakumea.
- 8.- Antiguoko kidea. Emakumea.
- 9.- Groseko kidea. Emakumea.

Ernai aktibo dagoen ia auzo guztiak jasotzen direla kontuan harturik (Egia eta Amara salbu), esan daiteke hirian prozesu feministak izandako bilakaeraren argazki orokor bat jaso daitekeela saio honen bitartez.

4.1.3) Taldearen behaketa Hernanin:

Azken teknika behaketarena izango da. Modu horretan, inolako “manipulaziorik” gabe, talde barruko dinamikak nolakoak diren ikusi ahal izan dut. Behatzailea, kasu honetan taldekideekin eseri bai, baina, ez du esku hartuko eguneko dinamikan.

Antolakundearen maila guztiak kontuan hartzeko, herri batean, Hernanin egindako bileraren nondik norakoak jaso dira. Batik bat kideen parte-hartzean eta haren nolakotasunean arreta ipiniz.

Behaketa egiteko zenbait txantilo prestatu ditu behatzaileak (ikusten eta entzuten duenarekin betetzen joateko). Plantillak atxikita doaz gehigarrietan, baina, hauek dira bilera aztertzerako unean kontuan hartu diren aldagai nagusiak.

a) Kidearen izaera.

Bileran egon ahal diren botere-harremanak eta sexu-genero araberako parte hartze desorekatuak ba ote dauden aztertzeko, garrantzitsua da lehenik eta behin parte hartzailearen nolakotasuna aztertea. Taldean zein nolako funtzioa betetzen duen ere jakitea garrantzitsua izango da. Kasu honetan, lehen txantiloiean oinarritzko informazio hori jasoko da:

- Adina

- Sexu/generoa

- Taldeen bestelako rol ik betetzen ote duten (kanpo harremanetako arduraduna, diruzaina, herriko arduraduna, eskualdeko koordinatzailea...).

b) Taldearen kokapena eta parte hartze katea

Bigarren atal honetan, mahai bat irudikatuta azaltzen da. Bertan kide bakoitzari zenbaki bat eman eta non kokatuta dagoen irudikatuko dugu. Mahai barnean ordubete horretan egon diren interbentzioak eta elkarrizketak jasokok dira zenbaki bidez. Ondoren, analisisian ikusi ahal izateko nor izan den gehien parte hartu duena, eta denboraz luzea ala laburra izan ote den.

c) Parte-hartzeen nolakotasunak

Kasu honetan sexu-generoaren arabera (aldagai garrantzitsua behaketa honetarako), banatuko ditugu batak eta besteak egindako ahozko parte hartze garrantzitsuak. Nolakotasuna jasotzea da garrantzitsua (luzea, laburra, ahots altukoa, elkar zaindu ote duten, zein nolako jarrera hartzen duten hitz egiterako unean...). Kasu honetan, parte hartzailearen zenbakia ipini eta gizon edo emakumea den esan ostean interbentzioaren nondik norakoak labur zehaztuko dira.

d) Gai ordena eta lanen banaketa

Bileran nork eta nola hitz egin duen ikusita, garrantzitsua da aldi berean gaiak eskaintako denbora eta egin beharren banaketa nola egiten den jasotzea. Kasu honetan gai gatazkatsuak ian direnak jasoko dira, gai ordenaren bidez detektatu ahal izango dugu zein gaik duen garrantzi gehien (eta ea, geure ikerketari dagokionean

feminismoarekin lotutakoak zeinen gain erortzen diren eta zenbat denbora eskaintzen zaizkion), eta baita egin behar bakoitza zeini dagokion (atze lana emakumeek ala gizonek egingo duten, kanpo harremanak gizonek...).

Beraz, lau dinamiken bitartez, jaso nahi da behintzat urrats feministak Ernai antolakundearen izandako eraginaren (edo ez eraginaren) lagin bat. Hiria eta herria aztertuko direla kontuan hartuta, eta gainera, antolakundeko maila ezberdinetan dauden kideekin hitz eginda, nahikoa informazio orokorra jaso ahal izango da. Era berean, antolakundeko talde feministarekin hasieratik harremana mantenduenez, ikerlariak egindako proposamenak berrikusi, eta hala behar izanez gero, moldatu ere egin dira. Hortaz, ikerketa beraren helburuekin koherentea den izaera parte hartzailea eta feminista mantentzea lortu da.

5. NOLA BIZI DUTE MILITANTEEK PROZESUA? Diskurtsoen analisia

Landa lana eginda, informazioa sailkatzeko lau ardatz hartuko ditugu kontuan. Batetik, ikusita antolakundeko maila ezberdinetako jendearekin hizketan aritu garelara, eta maila ezberdinetako errealitatea ezagutu dugunez, garrantzitsua da egiturako maila ezberdinetan kideek prozesu feminista nola bizi izan duten ikusaraztea. Bestetik, iker ildoetan azaltzen den moduan, eta marko teorikoan jorratuenez, Urrats Feministak arlo teorikoan zein nolako aldaketa suposatu duen eta praktikoki eraginik duen ikusiko dugu, elkarrizketatuen hitzak jasoz eta Hernaniko behaketa saioa eta Donostiako ebaluaketa kontuan hartuz. Azkenik, militanteen arabera etorkizunean landu beharreko erronkak zein diren ere azalduko dugu.

5.1 Egiturako maila ezberdinetan bizitakoa

Lehenago ere azaldu dugun moduan, Ernai gazte antolakundeak egitura ezberdinak ditu, eta, posible da maila ezberdinetan aritzen diren kideek prozesua modu ezberdinean bizi izana. Atal honetan, kideen diskurtsoak jasoko ditugu, bi azpi ataletan banatuta. Batetik, haien jardun feminista taldekideengatik baloratua izan ote den, eta talde feministaren lana kontuan hartzen den jasoko dugu. Bestetik, prozesua abian jartzerako unean erresistentziak bizi izan ote dituzten ikusiko dugu. Atal hau osatzeko, Buruntzaldeako lan talde feministako kide den 22 urteko Saioaren hitzak jasoko ditugu, baita talde nazionalean lanean aritzen diren Patxirenak (26 urte) eta Mirentxurenak (29 urte) ere. Amaitzeko, Donostiako ebaluazio saioan parte hartu zuten auzoko militanteen ebaluazioaz arituko gara.

5.1.1 Militante feministen jarduna eta talde feministarena nola baloratzen da?

Hiru elkarrizketatuen eta Donostiako ebaluazio saioan parte hartu duten kideen diskurtsoei erreparatuta, ohartuko gara feminismotik lau urte hauetan egin duten lana baloratua dela sentitu dutela. Are gehiago, zenbait partaidek uste dute ikuspegi feminista txertatzeak boterea ere eman diela (uler bedi eragiteko ahalmen moduan) antolakuntzak haien ahotsa errespetatuta izateko. Hortaz, esan dezakegu, norbanakoaren miliantziarentzat, orohar aberasgarria izan dela urrats feminista aurrera eramanean duten lantalde eta dinamizazioetan parte hartzea. Gehienek bat egiten dute esatean norbanakoaren ahalduntzerako giltzarria izan dela saioa (kontuan hartu behar dugu elkarrizketatuetako hirutik bi andrazkoak izan direla, eta bat gizonezkoa, eta Donostiako ebaluazio saioan bederatzitik bi zirela gizonezkoak). Egiturako lau maila aztertu ditugu ikerketan (maila nazionala, Hiriburua den Donostia, eskualdea eta herria), eta lau urte hauetan ageri da boteretze kolektiboaren zentzua ere. Batez ere, elkarrizketatuek emakumezko kideen ahalduntzearen berri eman dute.

Lehen elkarrizketatuak, Saioak, Ernai gazte antolakundeko hainbat mailatan hartu izan du parte. Sortze prozesutik izan da herriko militantea, eta ez dio inoiz utzi bertako kide izateari. Ordea, bi urteren ostean, Buruntzaldeako ildo feministaren ardura hartu zuen, eta egun Kaiera feministak idazteko lantaldean ere ari da. Saioak dio feminista zelako sartu zela Ernaien; erakunde mistoan emakumeen presentzia eta jardura feminista behar zirela konbentziturik. Lau urte hauetan zehar, ez du inoiz sentitu haren ikuspegia lekuz kanpo, eta are gehiago, esaten du baloratua sentitu dela eta haren iritzia kontuan hartu direla uste duela:

“Nire herrian, nik bai. Sentitzen naiz oso baloratua eta sentitzen det nire hitza hartzen dutela kontuan eta beste ildoak lantzen ditugunean ere, uste det kontuan hartzen dutela nik esaten detena. Beti ere idealizaziorik gabe, baina, bai sentitzen naiz baloratua”.(Saioa)

Are gehiago, lantalde nazionalako kide den Patxik uste du ildo feminista jorratzen egoteak “boterea” ere eman diola. “Maritxu” gisa identifikatzea nahi du, eta Segiko militantea zenean baino indar handiagoa duela iruditzen zaio orain, besteak beste, militantzia eredu hegemoniko eta maskulinoa iraultzen ari delako:

“Feminismoak botere gehiago ematen dit. Como marica de Ernai, niretzako inziditu nezakeen eremu bat izan zen lan talde feminista. Kanpora begira ahalmena eman dit, baina barrura begira ere, ahalduntzea izan da. Ernairekin erabaki nuen ez niola inoiz militatzeari utziko”.(Patxi)

Izan ere, Pili Alvarezek (2012) esan moduan, herri mugimenduetan kamuflatu egiten da militantzia eredu hegemonikoa, hau da, maskulinoa. Eta neutraltasunezko eredu bat errepresentatuko balu bezala, egiaz praktika maskulinizatu horiek dira irauten dutenak. Ernairen Urrats Feministaren bitartez, eredu maskulino eta ordura arte hegemonikoak indarra galdu du, eta ondorioz, bestelako gorputz eta subjektu batzuk hartu dute protagonismoa, feminismoaren gaiaren inguruan behintzat,. Horixe da Patxik Ernaiko militantziaren eta Segiko militantziaren artean egiten duen alderaketaren arrazoia.

Aldi berean, ordea, agerikoa da ikerketa hau egiteko dinamiketan parte hartu duten kideen gaitasunaren sentsazioa ere eduki dutela. Alde batetik, haien lana baloratua izan dela iruditzen zaie, eta nolabait, egindako lanagatik errekonozimendua jaso dutela. Ordea, txanponaren beste aldean, elkarrizketatutako askok sentitu dute lan karga haiengan erori dela askotan, feminismoaz zer esana haiek soilik edukiko balute bezala. Mirentxuk -lan talde nazionalako kideak- azaldu du ekitaldi handietan, esaterako, etortzen diren militante gehienek harremanekin eta gorputzarekin lotura daukaten tailerrak espero dituztela azaldu du, horrek duen “alde on eta txarrekin”. Izan ere, ikergalderetan planteatu den moduan, eta ikerketan etengabe azaltzen dugun moduan, zenbait neurri ezartzeak, errotiko hausnarketarik gabe, epe luzean gatazkak sor ditzake.

Aipagarria da, era berean, herri eta auzo mailara “jaistean” errealitatean topatzen diren lan-kargak- Kasu honetan, zenbait gai ikuspegi feministatik jorrazteko kide hauei egotzitako lana baino, Donostiako kideek eta Buruntzaldeako kideak egoera konkretuei aurre egiterakoan sentitzen duten bakardadeaz hitz egiten dute. Saioak aipatu du taldeko “matxiruloei” aurre egiterako unean, batzuetan bakardade sentimendua izan duela, hala taldekideekin hitz egin izan du zenbaitetan, esanaz feminismoa ez dela hari bakarrik dagokion lan bat edo gai zehatz bat. Aitzitik, talde guztiak hartu beharreko mundu ikuskera eta jarrera ere badela. Hala ere, taldekideekin hitz eginda, horrelako jarrerak modu kolektiboan aurre egiten ikasi dutela uste du. Ernaien ildo estrategikoa izanda, guztiek erantzun behar diotela azpimarratu du. Donostiako ebaluazio saioan ere lan taldeak lau urtetan izandako zama sumatu daiteke. Batzuek metodologiari egotzi diote hori, beti pertsona berek dinamizatuta, feminismoaren arloko lana zuzenean haiei egotzi zaiela argudiatuz. Beste batzuek, berriz, uste dute “errazena” hori delako gainontzeko taldekideek jarrera hori hartu dutela.

Agerikoa da, beraz, urrats feministan lanean aritu diren kideek talde gisa eta militante moduan ahalduntze bat sentitu dutela, dinamiketan parte hartu duten guztiek azpimarratu baitute norbanako moduan egin duten urratsa. Ahalduntzea parte hartzaile guztien hitzetan ageri da kasik, eta, gainera, lantalde gehienetan baloratua izan ohi da haien hitza, feminismotik militantzen dutelako. Ordea, nabarmena da aldi berean lau urte hauetan ildo horrekin identifikatu dituztelako sentitu duten zama; behar bada “aditu” izaera ere egotzi zaielako. Askotan, haiei ez dagokien lana ere egitera iritsi dira, edo botere harreman egoerei bakarrik egin behar izan diete aurre, eta hori, batez ere herri eta auzoetako mailetara joatean agerikoa da, militante horiek egunerokoan aurre egin behar dietelako haien kide gizonezkoei. Era berean, exigentzia bat sumatzen da gainontzeko kideen partetik. Betaurreko moreak ildo feminista lantzen duten kideek soilik eduki beharko balituzkete bezala. Hala izan ezean, Tania Martinezek (2015) azpimarratu moduan, feminismoaren lanketa osoa “arduradun” horiengan erortzeko arriskua dago, eta hortaz, ez da lortuko borroka horrekiko kolektibo osoaren atxikimendua. Gainera, diskurtsoen analisiaren bitartez ikusi ahal izan dugun moduan, taldearen gainkarga ere suposatzen dinamika horrek.

[5.1.2 Maila ezberdinetan urrats feminista egiteko topatutako erresistentziak](#)

Hain zuzen ere, aipatutako azken horrekin lotuta, ikus dezakegun moduan, urrats feminista edo prozesua aurrera eramateko erresistentziak ezberdinak dira egiturako mailaren arabera. Militatzeko eremuaren arabera, beraz, urrats feminista aurrera eramateko erresistentziak ere ezberdinak izan dira.

Lan talde nazionala

Elkarrizketatutakoen arabera, erresistentzia handiena, duela lau urte sentitu zuten. Prozesua diseinatu eta lehen kaiera argitaratzeko unean, militanteen aldetik (eta azpimarratu dute gehien bat gizonen aldetik), ez zela ehuneko ehunetan bete lehen kaieraren dinamizazioa. Arrazoi nagusietako bat izan da sozialismoak feminismoa barnebiltzen ote duenaren betiko eztabaida. Hala ere bi elkarrizketatuek uste dute “ezjakintasunak” eragindako erresistentziak izan direla. Hau da, prozesuari forma eman ahala, Ernaiko militanteek errazago parte hartu dute dinamikan, gehiago ezagutzen zutelako. Patxi elkarrizketatuak lotu du gizonezkoek feminismoaren inguruan zuten pertzepzioa haien parte hartze urriarekin. Prozesuak aurrera egin ahala, ordea, parte hartzeak gora egin duela uste du. Hain zuzen ere, bi kide horien diskurtsoan agerikoa da aurrerago sakonduko dugun arren teoria eta praktikaren arteko lehen talka. Izan ere, antolakundea feminista izendaturik, prozesua kide guztiek

egin behar zutela erabaki zen. Mirentxuk derrigortasunaren inguruan egindako hausnarketan ageri da hori:

“Derrigorrezko prozesu bat da, Ernai feminista delako. Baina, ez dute kide guztiek parte-hartzen. Hori zela soluzionau? Neuri be kontraeanak sortzen dizkit. Baina, berez, kide guztiek parte hartu beharreko prozesu bat zen”.(Mirentxu)

Bestalde, lan talde nazionala bera anitza eta mistoa izanda, zenbait kontraesan eta barne eztabaidei aurre egin behar izan diete lau urtetan; besteak beste beto feministaren proposamenaren inguruan eta kaierak gizon eta emakumeak modu berezitan lantzearen beharraz. Horrek, agerian uzten du lanketa feminista eremu misto batean aurrera eramatearen zailtasuna (aurretik azaldutako sexu-genero sistemaren oinarritutako desberdintasunen ondorioz). Kontuan hartu behar dugu gainera, Ernai ez dela mugimendu isolatu bat, eta Ezker Abertzaleko bestelako egitura batzuekin, zein kanpoko beste antolakunde batzuekin harremana duela. Horregatik, militantzia eredu ezbaian jarri ez duten eragileekin elkarlanean aritzean, berriz ere azaleratzen dira erabat naturalizatutako molde maskulinizatuak eta sexu-genero sistemaren araberako desorekak.

Bestalde, aipagarria da erresistentzia maila nola joaten den gora feminismoaren lanketaren arabera. Oinarrizko kontzeptuak lantzerako unean, ez dute nabaritu hainbesteko oztoporik. Ordea, norberaren gorputzari, harremani eta izateari erreferentzia egiten zaionean, militanteek dituzten mugak handiagoak dira. Izan ere, aurrez ikusi dugun moduan, feminismoak badu bertute bat, hain zuzen ere, makro egiturak aztertzeaz gain, mikroan gertatzen diren botere-harremanak aztertzeko eta kontraesanak agerian uzteko. Egitura handietatik norberaren jardun eta izaerara jaisten den borroka horrek sortutako kontraesanak gainditzea da, hain zuzen ere, aurrerago ikusiko dugun moduan etorkizunean askatu beharreko korapiloetako bat.

Hiriburua: Donostia

Ebaluazio dinamikan parte hartu duten kideen arabera, erresistentzia handiena gizonetzko militanteen aldetik bizi izan dute. Askok uste dute militanteen artean ez zaiola garrantzi handia eman eta horregatik, gizon askok ez dutela prozesua bere sentitu. Ebaluaketan parte hartu duten kide gehienek, gainera, sentitu dute bere gain erori dela prozesua aurrera eramateko zama, eta beraz, erresistentziak baino, babesa izan dela jaso ez dutena auzora joaterakoan. Beste behin ere, agerian gelditzen da

Tania Martinezek (2015) ohartarazi bezala, talde espezializatuak sortzeak prozesua kidego horren gainean erortzeko arriskua dagoela.

Aldi berean, ia gehienek uste dute ez dela berdina maila nazionalean feminismotik eragitea ala auzo eta herrian erresistentzietan aurre egitea. Auzo eta herrietan eguneroko inertzietan eta naturalizatutako jarreretan egin behar baitaie aurre. Ordea, maila nazionalean bestelako lanak egin dituzte, eta agian ez dute bizi eguneroko militantzia hain modu zuzenean. Dena den, ebaluazio saioan asko errepikatu den ideia izan da aldaketa praktika eta jokaera txikietan gertatu dela, eta ez hainbeste egitura mailan. Hau da, egiturak hierarkikoa eta praktika maskulinoduna izan arren oraindik, herrietan, eta batez ere emakumeen ahalduntze kolektiboaren ondorioz, aurre egiten hasi zaie unean uneko gatazkei.

Bistan da, ordea, prozesuak, Donostia mailan behintzat, norentzat eduki duen eraldaketarako gaitasuna, eta norentzat izan den erresistentzia gune. Batetik, militante emakumeen ahalduntzerako sekulako prozesua izan da, eta horren bitartez sortu dira, besteak beste emakume gazteen taldeak. Ordea, ebaluazio saio honetan behin eta berriz azpimarratu da auzoetako kide (batez ere) gizonezkoek kaieren dinamikak aurrera eramateko jarritako erresistentziak. Askotan, dinamizatzailerak errepikatutako esaldia izan da ondorengoa: *“Si bueno, ta hau nola explikatu behar diet auzokoei? (P3)”*. Alde batetik dinamizazio prozesuan parte hartzen duten kideen etsipena azaltzen da pentsaera horretan, bestetik ordea, eragiteko uste baino ahalmen gutxiago dutenaren sententzia.

Eskualdea: Buruntzaldea

Buruntzaldean, emakume gutxi dira Ernaiko militante, gizonezkoekin konparatuta. Horregatik, bi planotan bereizi daitezke eskualde horretan agertzen diren erresistentziak. Batetik, kopuru hutsari erreparatuta, emakumeak desorekan daude eta, beraz, lanak berezituak egin behar izan da kuantitatiboki ez, baina kualitatiboki andrazkoak gizonezko militanteen pareko mailan egon daitezen. Bestalde, kaiera feministak batez ere maskulinoak diren espazioetan egitearen zailtasunaz ohartarazi du Saioak:

“Prozesuko saio batzuetan, bai, hor bai sentitu det. Hor batez ere emakume gutxi gaudelako. Eta badaude mutil batzuk oso begirada feministarekin baina ez direnak ausartzen beste mutil batzuek konfrontatzera”.(Saioa)

Kaieren lanketak, hortaz, konfrontazio berri bat azaleratzen du: taldeko gizonetako batzuek beste gizonetako batzuekin dutena. Agerikoa da kuantitatiboki emakumezkoen presentzia urria den eskualde horietan, gizonetako "aliatuen" presentzia beharrezkoa dela, eta lanketak, beraz, bikoitza izan behar duela: prozesua militante guztiekin eramatea, baina baita taldean aliantzak sortzea ere gerta daitekeen edozein erresistentziari modu kolektiboan aurre egiteko eta lehenago aipatu dugun lan karga soilik dinamizatzaile eta ildo feministako kideen gain erori ez dadin. Jokin Azpiakuz (2015), etikari eta moralari lotutako arrazoiei egozten die orohar, gizonetako jarrera aldaketa feminismoari dagokionez. Ordea, aukera berdintasunaren ideiak gizonetako erresistentziaren ideia geroz eta zabalduago dago gizonetako militanteen artean, eta horrek maskulinitate eredu berriak eta feminismoaren aldeko apustua egitera bultzatzen ditu. Kasu honetan, ordea, agerikoa da, talde dinamiketan andrazkoen alde egiteak boterearen desjabetzea ekarriko diela gizonetako, eta era berean, moralki eta etikoki alde egon arren, pisu handiagoa hartzen du gizonetako boterea ez galtzearen jarrerak.

Atal honekin amaitzeko, azpimarratu behar dugu, Hego Euskal Herriko testuingurua hartuta hiriburu zein eskualdearen arabera ezberdin bizi izan dela prozesua. Herri eta auzo batzuek beharbada prozesuaren aurretik ere tradizio feminista izan dutelako edo mugimendu feministarekin oso estuki lotuta egon izan direlako beti. Eta beste batzuek berriz, tradizionalik beste gai batzuei eutsi dietelako feminismoari heldu aurretik. Horregatik, paperera ekarri ditugun erresistentziak lekuan lekukoa direla kontuan hartu behar dugu. Nahiz eta, eskualde, hiriburu eta maila nazionalen detektatutako erresistentziak ezberdinak izanda, aukera ematen duen mailaketa berezia egiteko.

5.2 Teoria eta praktikaren arteko arrakala

Iker ildoetako bati erantzunda, diskurtsoaren analisia egiterako unean, garrantzitsua da erreparatzea maila teorikoan egindakoa aurrerapausoek eragina izan ote duten maila praktikokoan ere, hau da, egunerokotasuneko militantzian. Horretarako, kontuan hartuko ditugu, alde batetik elkarriketatuekin izandako solasaldia, Kaierek dakartzaten proposamenak, Donostiako ebaluazio taldearen esanak, eta bestetik, Hernaniko bileran ikusitako eta detektatutako desberdintasunak emakume eta gizonetako parte hartzean. Analisia errazte aldera, Kaieren inguruan dinamiketan

parte hartu duten kideek duten ikuspegia jasoko dugu, eta ostera, Hernaniko saioaren behaketaren ondorioak mahai gaineratuko ditugu.

Kaieren potentzialitatea

Ikusi ahal izan den moduan, lau urte hauetan argitaratutako lau kaierak eta horiekin egindako lanketak potentzialitate handia izan dute. Pedagogikoki eta metodologikoki egokiak izan dira. Horixe da ikerketa hau egiteko sortutako dinamiketan parte hartu duten kideen iritzia, eta horixe bera mugimendu feministatik jaso duten *feedback*-a ere. Kontuan hartuta antolakunde misto batean prozesu feminista aurrera eramateko materiala eskaini behar dela, berezitasun jakin batzuk ditu, eta horietako bat da, hain zuzen ere kaieretako dinamika gizon eta emakumeek modu berezitan lantzea. Baita, dinamizaziorako lanak, ahal den neurrian, txandakatzen joatea ere. Horrela, antolakundeko kideek lantzean behin urrats feministan modu zuzen batean parte hartu beharko dute.

Kide ugariak jaso duten moduan, Kaiera feministetako edukiak eraginkorrak izan dira oinarri feminista bat abian jartzerako unean. Lau kaierak gradualki murgilduarazi dituzte militanteak prozesu feministan. Lehenik, antolakundearen oinarri feministak ezartzeko kontzeptuak landu dituzte, ondoren feminismoaren munduko eta Euskal Herriko historia jorratu dute. Hirugarren kaierak feminismoa gainontzeko ildoetan era transbertsal batean lantzea ekarri zuen, eta baita norberak naturalizatuta dituen praktika heteropatriarkalak detektatzeko teknikak ere. Dena den, ikusi dugu militante bakoitzak naturalizatuta dituen jarrerak eraldatzean dagoela erresistentziarik handiena. Izan ere, feminismotik eragitea, pertsonala politizatzea da, eta zentzu horretan, norberak eraldatu eta deseraiki behar ditu haren pribilegioak. Horiek detektatzea eta horietan eragitea da feminismoa borroka politiko gisa aurrera eramatearen konplexutasun handiena (Piris, Silvia 2015).

Azkenik, militantzia taldeetan gizon eta emakumeen arteko dominazioak ekiditeko eta lantzeko dinamika proposatuko ditu argitaratuko den laugarren kaierak. Beraz, teoria eta praktika lau urteetan zehar elkar uztartzeko saiakera egin da. Kaiera bakoitzak taldean egiteko tailerrak eta dinamika proposatzen ditu. Ordea, ikusteko dago ea mekanismo zehatzak ezartzeko aukera ba ote dagoen. Laugarren kaiera izango da mugarrizko zentzu horretan.

Agerikoa da Ernai gazte antolakundeak egin duen apustua feminismoa ildo estrategiko gisa definitzen. Ikusi besterik ez dago prozesua lantzeko dagoen lantaldeak hartutako lana eta Kaierak berauek sortzeko talde propio bat dagoela kanpoko beste

zenbait eragilerekin (Joxemi Zumalabe fundazioa, Emagin elkarte eta Bilgune Feminista esate baterako). Era berean, metodologia aldetik ere, elkarrizketatutako ia gehienek bat egiten dute esatean asmatu dela prozesua aurrera eramateko moduan. Urtean kaiera bat lantzea, zenbait eskualde edo herrientzat motelegia izan bazitekeen ere, orohar, militantzia osoarentzat aproposa izan da. Horrela, aukera eman zaio herri eta eskualde bakoitzari nahieran prozesua egiteko (talde txikian ala eskualdean, eta nahi duten epealdian). Horrek bat egiten du, aldi berean Ernairen dezentralizazio prozesuarekin, eta ekidin ildo feminista lantzearen zama gutxi batzuen eskuetan erortzea. Nahiz eta, praktikan baieztatu ahal izan dugun moduan, mekanismo horiek ezartzeak ez duen ekarri prozesu feministan Ernaiko kide guztiek parte hartze eta inplikazio bera edukitzea.

Kide askok, gainera, azpimarratu dute, Ernaiko militanteek baino, gehiago baloratu dutela beste eragile batzuek prozesua eta kaiera. Mirentxuk, esate baterako, adibide gisa jarri du prozesuaren lanketa Bilgune Feministarekin eta Joxemi Zumalaberekin konpartitua izan dela. Kideen artean prozesua hain baloratua izan ez arren, Donostiako ebaluazio saioko kideentzat, inoiz feminismoaren inguruan jasotako formakuntza osoena izan da Kaiera feministen lanketa. Baina, lanketa teorikoaz gain, zenbateko eragina izan du urrats feministak herrietan? Horretarako, Hernaniko asteroko bilerara joan gara, behaketa egitea.

Lau urteren ostean, ageri da ezberdintasunik? Hernaniko bileraren behaketa

Aldez aurretik, esan dugu Buruntzaldean emakume militante gutxi daudela, eta Hernani ere ez da salbuespena. Hamazazpi dira taldean eta horietatik soilik lau emakumezkoak. Kontuan hartu behar da gainera, Hernanin talde feminista ugari daudela, eta militantzia gaztera ere iristen direla horiek. Azaldu diguten moduan lau kideak dira feministak, eta bertatik eragiten ahalegintzen dira uneoro. Behaketan ere, ikusi ahal izan da bileran hiru emakumek bakarrik parte hartu arren, parte hartzeari dagokionez ez dela sexu-genero sistemaren arabera desorekarik gertatu, eta andrazko guztiek parte hartu dutela sarri eta interbentzio luzeekin. Beraz, parte hartzeari dagokionez, esan dezakegu, ahaldundutako emakumeen taldea dela Hernanikoa. Horrek, ordea, ez du esan nahi gizonetako militanteen partaideen desboteretze bat gertatu denik. Agerikoa da zentzu horretan, gizonetakoak diren, eta gainera, herriko militantziaz gain bestelako ardurak dituzten gizonen esanak nola inposatzen diren beste batzuen gainetik. Argi geratu da, esperientziak, adinak eta egiturako beste espazio batzuetan ere militatzeak legitimitate handiagoa ematen dietela militante horiei gainontzeko herriko militante gizonen aurrean (eranskinetan

atxikita doa behaketarako erabilitako plantila, bertan zehazten da herriko militante izateaz gain bestelako ardurarik ba ote duen kide bakoitzak).

Izan ere, ardurei dagokienez, lau andrazkoek betetzen dute herriko taldeko militantzia gain bestelako rol bat. Baina, hor dago datu deigarria: bestelako eragileekin harremanak mantentzeaz arduratzen direnak gizonezkoak dira (herriko hirukora joateko -Sortu, LAB, Ernai), eskualdeko ardura duena eta baita herriko ardura duena. Emakume bat hasi berri da eskualdeko bilerara joaten, beste bat ildo feministaz arduratzen da eta beste biak diruzainak dira. Esan genezake hortaz, eskualdera joan den emakumezko kide horren salbuespenaz aparte, oraindik agerikoa dela espazio publikoarekin lotura duten rola zeini dagozkion eta, aldiz ikusezina eta askotan errekonozimendurik ez duen hori (diruzaintzarena, gainera, arduraren sentimenduarekin oso lotuta dago) emakumeei dagokiela. Ikusi ahal izan dugu lehenago ere, askotan emakumeen parte hartze politikoaz hitz egiten dugunean, ez dugula kontuan hartzen ikusezina den lan hori, eta horregatik, sarri, uste baino andrazko gutxiagok parte hartzen dutenaren irudipena dugu (Amurrio, Mila; Larrinaga, Ane 2012).

Aldi berean, kontuan hartu behar da bilerako parte hartzearen nolakotasuna. Izan ere, andrazkoek gizonek haina parte hartu arren, eta interbentzio luzeak egin dituztela kontuan hartuta, formek maskulinoak izaten jarraitzen dute. Horren adibide da, esate baterako, taldean botere gehien duten gizonezkoak altxa izan direla haien iritzia plazaratzeko (eta inposatzerako) unean, eta elkarren artean askotan moztu diotela ere. Andrazkoek, berriz, parte hartze aktiboa izan badute ere (kontuan hartu behar dugu jai ereduen inguruko eztabaida bat eduki dutela, eta beraz, taldekideen artean ikuspegi feminista sarri izan dutela), askotan feminismoaren inguruko gaiei lotuta, emakumeei egin zaiela galdera (esaterako, taula gainean emakumeen presentzia nola bermatu eta sexualitate tailerraren proposamena). Esan moduan, emakume kideek askotan eta luze parte hartu badute ere, agerikoa da bestelako molde batzuk ibili dituztela hitzartzeko. Besteak beste, ugariak izan dira *nire iritziz, uste dut, agian...* moldeak; gizon boteredunen ohiko *horrela izan behar* da ereduaren aurrean. Era berean taldeko zaintza emakumeen esku gelditu da. Hala nola P1 kideak sarri egin die galdera denbora gehien isilik pasa duten kideei, haiei iritzia galdetzen, edo elkarren arteko besarkadak eta laztanak ere bultzatu dituzte.

Era berean, emakumeen presentzia handiagoa izan da ardurak nori hartu behar dituen erabakitzerako unean. Agerian gelditu da gizonezkoek proposamenak egin dituztela, agian hainbeste pentsatu gabe, eta emakumeak izan dira, behaketa honetan

behintzat, hori nola kudeatu daitekeen hausnartu dutenak edo hori aurrera eramateko ardura hartu dutenak. Are gehiago, gizonezko militanteak izan dira gai horien inguruan emakumeei egin beharra delegatu diena. Oholtza gaineko emakumeen presentzia eta musika ereduaren inguruan hausnartzen ari zirenean, P3 andrazko kideak proposamena egin du DJ feminista bat ekartzeko. Hala erantzun dio P9 gizonezkoak:

“In dezakeuna da Sutuk proposatu ditun kontzertuk mantendu, baino igual denbora tartia murriztu. Ta oi bukatzeanian, ba zure DJa jartzedeu” (P9)

Esplizituki DJ feministaz hitz egin ez arren, P3-ri egozten dio hori antolatzearen ardura. Are gehiago, argi uzten du bere hitzartzean ez duela esfortzurik egingo (pertsonalki) beste eredu batzuk mahai gainean jartzen dituen musika estiloa ekartzeko. Feminista izaera ere kendu dio DJari” zure DJa” soilik esanaz.

Ikusi dezakegun moduan, Hernaniko talde honetan andrazkoak kuantitatiboki askoz ere gutxiago dira. Ordea, horrek ez du eraginik haien parte hartze eta ahalduntzean. Hala ere, nabaria da oraindik ere emakumezkoari egozten zaizkiola “arduratsu” izan beharreko gaiak (diruzaintza esate baterako); ikusezinak eta askotan errekonozimendu gabeak, gainera. Aldi berean, gaiei dagokienez ere badira oraindik gizonezkoek lantzen dituzten gaiak, eta horien ardura hartzen dute (txosna, beste herri eragileekin bilerak, musika taldeekin). Andrazkoak, berriz, horren bideragarritasunean pentsatzen jartzen dira eta *ustezko*-etatik hitz egiten dute, baiezko absolutuetatik hitz egin beharrean. Esan genezake, Hernaniko taldeari erreparatuta emakumezkoen parte hartzean ahalduntzea eman dela; baina, oraindik ere, zenbait gaietan genero asimetria agerikoa dela, eta are gehiago, inondik ere ez dela eman gizon boteredunen pribilegioen desjabetzea.

5.3 Militantzia ereduari aldaketa

Lau urteko prozesuaren ostean, aldaketa nolakoa izan den aztertu dugu ikerketa honen bitartez. Hasiera batean, aldaketen berri soilik ematea zen helburua, ordea, elkarrizketatuen informazioaren ondoren, datorren atala gehitu dut. Izan ere, prozesu feministak militanteengan zein nolako eragina izan duen ulertzeko, kontuan hartu behar da aldaketa zein hausnarketatik eta zein testuingurutan izan den.

5.3.1 Nola heldu gara honaino?

Lehenago ere aipatu moduan, Ernai da Ezker Abertzaleko beste egiturekin alderatuta prozesu feminista era sakonenean egiten ari den antolakundea. Elkarrizketatu guztiek azpimarratu dute aldaketa eta prozesua aurrera eramateko oztopoak izan direla, eta apustua handia izan dela. Dena den, eraldaketa soilik diskurtsiboa izan ez dadin, militanteen artean adostasun bat egon behar da, eta ez, maila nazionalak edo zuzendaritzak hartutako erabakia. Horrela ba, esan beharra dago, Ernairen Urrats Feminista ez dela soilik mahai nazionalaren erabakiz ezarri. Mirentxuk horrela gogoratzen du gazte antolakundeak feminismoa ildo estrategiko gisa ezartzeko egindako hautua nolakoa izan zen:

“Militantzia izen zan feminismoa ildo estrategiko moduan ipintzia eskatu zuena. Gainera, uste dot hori izen zala ZukGuka prozesuko eztabaida potentiena. ZukGua prozesuan proposatu zan antolakunde berriari feminista izaera emotia ta gero holan onartu zan”. (Mirentxu)

Ikusi daitekeen moduan, ZukGua eratze prozesuko eztabaidetan militantziak bera erabaki zuen feminismoa lehen lerroan kokatzea. Hortaz, erabaki kolektibo batek sostengu handiagoa izan duela azpimarratu behar dugu, eta ondorioz, aldaketak uste baino handiagoak izan direla zentzu horretan.

Bestalde, elkarrizketatu guztiek azpimarratu dute Euskal Herriko mugimendu feministaren indarraldia. Batetik, azaldu dute mugimendu feminista indartsu egoteak Ernaien bakarrik ez, Euskal Herriko gazteen artean orohar eragin zuzena izan duela. Bestetik, prozesua mugimendu feministako zenbait eragilerekin batera aurrera eramateak dakarren perspektiba findua kontuan hartzekoa da. Beraz, ez da edonola hartutako erabakia. Oinarrizko hiru zutaberen gainean gertatu den aldaketa izan da: lehena, militantziaren sostenguz sortutako dinamika dela, bigarrena, mugimendu feminista indartsu egoteak halabeharrez eragina duela ezkerreko mugimenduen bira estrategikoa (Martinez, Tania. 2015). Amaitzeko, antolaketa eredu irekiagoa izanik, inguruko eragile feministekin lanean aritzea ahalbidetu dio Ernairi eta horrela, urrats feminista aberasgarriagoa eta errotikoagoa egiten lagundu.

5.3.2 Aldaketa nagusiak

Diskurtsoak aztertuta eta behaketa saioa eginda, ikusi dezakegu militantzia ereduan aldaketak egon, egon direla; batez ere, Ezker Abertzaleko beste egiturekin eta aurreko gazte antolakundeekin alderatuz. Lehenik eta behin, azaldu behar da, marko

teorikoan ere esan dugun moduan, aldaketa diskurtsiboa soilik egitea ere, aldaketa izan badela. Horrela azaltzen du balio hori talde nazionalako Patxi:

“Eske nik uste dut, aldaketa diskurtsiboa ematen duzunean jada badela aldaketa praktikan. Ez? Nahi dut esan, hori buruan daukazu eta pixka bat bada ere, egiten da aldaketa. Ez dakit, Ernairen iruditeria ere aldatu da”.(Patxi)

Landa-lana egin ostean, bistan da gizonezkoek, diskurtsiboki bada ere, jaso dutela ildo feminista lanztaren garrantzia. Dinamikak egin ditugun zenbait eremutan, ordea, emakume askok zalantzan jartzen dute, prozesuak benetako eragina izan ote duen gizon militanteengan. Askok uste dute, aldaketa *“feminismoaren txapita”* eramateagatik izan dela. Etikak eta moralak, eta kasu honetan, antolakundearen barruan “ongi ikusia” izateak, eragina du, berriz ere gizonezkoek feminismoarekiko izandako aldaketa diskurtsiboan (Azpiazu, Jokin. 2015).

Praktikoki kontuan hartzeko beste aldaketa bat da neska gazte taldeen sorrera. Prozesuaren apustu etako bat zen, eta egiturako hiru eremuetan (maila nazionala, hiria eta eskualdea), aipatu dute talde berri hauen sorreraren balioa. Garrantzi berezia aitortzen zaio, hortaz, emakumeak boteretzaren lanketari. Gainera, ikusi ahal izan dugu ez dela soilik diskurtsiboki bultzatutako zerbaite. Aitzitik, errealitatean hiri eta herri ezberdinetan sortzen ari diren taldeak direla. Bestalde, urrats feministak aukera eman die neska gazte taldeak sortu ez diren herrietako kide emakumezkoek ahaldu kolektiboa eman eta boteretzeko.

Era berean, aipagarria da zenbait elkarrizketatuk azpimarratutako ideia: 24 orduko militantzietatik, militantzia sostengarri bateranzko bidea egiten ari direla, alegia. Horrela, maila makroko egiturazko zapalkuntzak mikrorra ekartzeak elkarren arteko dinamiken inguruan hausnartzera ekarri du. Donostiako ebaluazio saioan kontsentsuz azaldu den gauza bat da prozesu feministak talde moduan formatzeko eta eraldatzeko aukera eman duela. Nahiz eta egunerokoan oraindik ere agerikoa diren sexu-genero sistemaren araberrako desorekak.

Militatzeko eredu aldatu izanak, aldatu egin du era berean kontzientzia ere. Hernaniko saioan bertan ikusi ahal izan dugu begirada feminista presente dagoela; nahiz eta kontrapartida gisa, beti horren inguruko lanketa egiteko ardura berdinen dagokien. Hain zuzen ere, ikerketa hau egiteko orduan gehiegi lantzeko aukera eduki ez badugu ere, laugarren kaieran proposatutako mekanismo zehatzak kontuan hartzea ere interesgarria da. Izan ere, horrek ekarri dezake, militantzia eredurako zein antolakunderako, diskurtsotik haratago, aldaketa bat. Era berean, Iñurritegia

Kongresuaren prozesuaren ponentzian sexu-genero sistemaren arabeko desberdintasunak ekiditeko eta emakumezko eta gizonezkoen parte hartzea orekatuago izateko tresna espezifikoak ere proposatu dira; esaterako beto feminista.

Ikusi ahal izan dugun moduan, aldaketak gertatu dira, baina, nagusiki oinarritzko aspektuetan. Elkarrizketatu guztiek, hala ere, azpimarratu dute prozesu feminista betierekoa eta etengabea izango dela, eta hasieran ezarritako helburuak ehuneko ehunean bete ez badira ere, emaitzei baino, garrantzitsuagoa dela prozesua berari erreparatzea. Erresistentzia nagusienak, lehenago aipatu moduan norbanakoaren jarreretan eta bizi-praktiketan eragina dutenean ageri dira. Baita feminismoa ildo transbertsal moduan ulertzerako unean. Segidan ikusiko ditugu etorkizunean askatu beharreko zenbait korapilo.

5.4 Etorkizunerako erronkak

Egindako elkarrizketetan eta ebaluazio saioan sarri azaldu da datozen lau urteetan prozesu feminista aurrera nola eramatearen kezka. Alde batetik, agerian gelditu da prozesuak non eduki dituen hutsune gehien (zegar-lerro gisa kokatzean esate baterako). Hori edonola ere, ez da harrizkekoa, izan ere, gazte antolakundeak lehen aldiz ezarri zuen duela lau urte prozesu feminista abian eta Segiko egitura zurrin eta itxietatik etorrira, molde eta militantzia eredu guzti horietan eraldaketa lortzea ez da erraza. Horrela azaltzen du aurreko gazte antolakundeko eta oraingo militantzia ereduaren aldaketa lan talde nazionalako kide Patxi:

“Lehen militantzia eredu oso lotua zegoen ausardiarekin. Ausardia enplan macho. Oso militante fina bazinen, ematen zuen ezin zenuela disfrutatu. Orain erosoago sentitzen naiz, niretzako hor dago militantzia dibertigarri bat”. (Patxi).

Hain zuzen ere, oinarri bat ezarrita eta hausnarketa kolektiboak aurrera eramanez direla agerikoa da, baita emakume kideen boteretzea gertatu dela. Mari Luz Estebanek (2017) berak balioan jarri du egun neska gazteen taldeak sortzeak beraien ahalduntze prozesuetan duen eragina. Ordea, kide ugari azaldu dute agian garrantzitsua litzatekeela prozesuak beste norabide bat hartzea. Behin emakume militanteen ahalduntzea eta boteretzea gertatu ostean, gizonen pribilegioen inguruko lanketa ere egin beharko litzatekeela azaldu dute zenbaitek. Izan ere, jakin badakigu, eraldaketa feminista eta gizon eta emakumeen arteko parte hartze orekatua gerta dadin, beharrezkoa dela emakumeen ahalduntzeaz gain gizonek euren pribilegioen inguruko lanketa egitea eta horietaz desjabetzeko bidea egitea. Aldi berean, maila nazionalako

kide batek proposamen gisa bota du emakume gehiago egon behar direla antolakundeko boteregunetan. Ez baita berdina maila lokalean ala maila nazionalean militatzen aritzea.

Bestalde, eta pribilegioarekin eta praktika naturalizatuekin jarraituz, solasaldien bidez ohartu gara erresistentzia eta oztopo nagusiak feminismoa zehar-lerro gisa lantzerakoan ageri dira. Horretan ere datozen lau urteetarako findu beharko litzateke zein beste ildoetan kokatu perspektiba feminista (kide guztientzat antolakunde batek feminista izateko, jardunak feminista izan behar du eta gai oro landu behar da “betaurreko moreekin”). Horretarako neurri espezifikoek beharra azpimarratu dute kide gehienek, baita lehen lau urte hauten batik bat lanketa teorikoa izan dena benetako tresnak sortuko dituen prozesu bat izatea bideratzea ere. Amaitzeko, herri eta auzoetako militanteen artean sortu den kezka da belaunaldi berriekin nola landu prozesua. Izan ere, ikusi dugu, sortze prozesuan militantziak eskatu zuela prozesu feminista eta modu horretan era kolektiboan egiten ari dela eraldaketa. Hortaz, ikusi beharko da taldean sartzen diren kide berriek nola hartuko duten funtzionatzeko eredu ezberdin hori.

5. ONDORIOAK

Ikerketa eginda, eta berrikusketa teorikoa, zehaztutako ikergalderak eta kideek emandako informazioa kontuan harturik, lau urte hauetan Ernai gazte antolakundeak aurrera eramandako urrats feministak zein nolako eragina izan duen ondorioztatu dezakegu. Beti ere, kontuan hartuta Donostialdea mailan egindako ikerketa izan dela, eta errealitatean, Hego Euskal Herrian anitzagoa izan daitekeela. Hala ere, ikerketa hipotesiei helduz ikusiko dugu ea nolako aldaketa izan duen gazte antolakundeak prozesu feminista abian jarri zuenetik. Hipotesiei erantzuna eman nahian, batetik, maila diskurtsiboan zein militantzia ereduan izandako aldaketen, eta ondorioz, egondako erresistentzien berri emango dugu. Bestetik, prozesua aurrera eraman duten kideengan lanketak edukitako eraginaren inguruan hausnartuko dugu. Ondoren prozesuak berak emandako fruituak zeintzuk izan diren eta eraldaketaren bat gertatu ote den jasoko dugu. Azken batean, parez pare jarriko ditugu emakumeen ahalduntzearen alde egindako lanketa, eta gizonen boterearen desjabetzean izandako hutsunea.

5.1 Urrats Feminista; aldaketa diskurtsiboa baino gehiago?

Lehen hipotesiari erreparatuta, esan behar dugu, oztopoak egon arren, maila diskurtsiboan baino eragin handiagoa edukitzea lortu duela prozesuak. Lau urteko bidearen ostean, ageriko aldaketak sumatu dira Ezker Abertzalearen gazte antolakundearen barnean. Testuinguruak lagunduta (klandestinitateak eta errepresioa hain konstantea ez izatea alde batetik, eta mugimendu feminista indartsu egotea bestetik), eta militantziak hala eskatuta (gogoratu dezagun ZukGua prozesuan egindako eskakizuna izan zela feminismoak gainontzeko ildo estrategikoez hainako garrantzia izatea), aukera egon da prozesu feminista bat abiarazteko. Prozesua ez da lau urte hauetan amaitzen, naiz eta lehenengo fasea itxita gelditzen den azken kaieraren lanketarekin. Horregatik, emaitzei baino, prozesuari erreparatzea garrantzitsuagoa izan arren; kontuan hartu behar da lau urteotan prozesuak izan dituen alde positiboak zein izan diren, eta zein izan diren ahulguneak:

a) Indarguneak:

Agerikoa da, esate baterako diskurtsiboki antolakundeak egindako aldaketa. Plano teoriko batean ikuspegi feminista txertatzeak ekartzen du bestelako mundu ikuskera bat sustatzea behintzat. Ernairen karteldegia erreferente bilakatu da emakumezkoen gorputzak eta gorputz ez hegemonikoak publikoki azaltzen. Espazioa eta ikusgarritasuna, beraz, eskaintzen die normalean eremu publikoan ikusezin diren horiei. Horren adibide dira martxoaren zortziko eta ekainaren 28ko kartelak eta kanpainak. Publikorako erreferentzia ere andrazkoek hartu dute gehienetan, edo behintzat, bozeramailtzak gizon emakumeen artean banatzen ahalegin du da antolakundea. Hala ere, hausnartu beharko litzateke publikoan erakusten den emakume eredu horrek ere hegemonikotik zer duen (ez da gorputz lodirik ageri Ernairen iruditegian).

Gainera, maila teorikoan agerikoa da aurrea pauso handia egin dela kaieren bitartez. Kaierak antolakunde mistoetan prozesu feminista bat aurrera eramateko tresna egokia bihurtu dira, eta horren lanketa egiteko erresistentziak egon izan badira ere, orohar, egiturako maila guztietan lanketa egitea lortu da. Modu horretan alboratu dezakegu lehenengo hipotesian diogun moduan antolaketa ereduak kaltetu lezakeela prozesua. Nahiz eta egia den egitura hierarkikoa mantentzeak askotan luzatu egiten dituela dinamikak; kasu honetan erresistentziak ez dira antolakuntza ereduagatik sortu. Aitzitik, aurrerago ikusiko dugun moduan lanketa feministaren sakontasunaren araberakoak izan dira oztopoak. Bestalde, hiri eta herrien arteko konparaketari

dagokionez, ezin baiezta dezakegu herrietan erresistentziak handiagoak izan direnik; nahiz eta aipatu beharrekoa den Hernaniko emakume militanteen kopurua askoz baxuagoa izan dela Donostiako dinamizazio saioan baino.

Era berean, edukien aldetik, formakuntza handia eskaini duen tresna da kaiera. Prozesuan lanean aritu diren kideek ere aitortu dute inoiz feminismoan inguruan jasotako formakuntza osoena izan dela. Osoena izan dela ezin esan genezake, baina, edukiak era gradual batean planteatuta egoteagatik eta izandako izaera praktikoagatik, eragina eduki du Ernaiko militante ia guztiengan. Ondorioztatu genezake, beraz, Ernai antolakundearen logika bederen feminismoarantz aldatu dela. Argi dago, feminismoa presente dagoela Ernaien, eta are gehiago, militanteen artean ere zenbait jokabide aldatzen ari direla.

Ondorioz, eta lehen hipotesia berriz ere lerro-artera ekarriaz, esan behar dugu Ernairen prozesu feministak maila diskurtsiboan baino eraldaketa handiagoa eragin duela. Nahiz eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, kide jakin batzuen aldetik oztopoak egon diren, eta prozesuan aritu diren kideentzat sarri nekagarria izan den. Izan ere egiturako maila guztietara prozesua modu parekoan iritsi, ez da berdina egitura nazionaletik proposamen teorikoak egitea eta egunerokoan taldeko kideei aurre egin beharra.

Aipatutako aldaketaren adierazgarri nagusia da emakume kideen ahalduntze kolektiboa eta neska gazteen taldeen sorrera. Kolektiboki emakumeak ahalduntzea eta ondoren neska gazte taldeak sortzeak eragin handia du; batetik, ordura arte espazio publikoa eta parte hartze politikoa askoz ere urriago zutelako, eta prozesu honen bitartez gizonen pare kokatu delako haien parte-hartzea (kontuan hartzen dituztela, alegia). Bestetik, neska gazte talde horiek eragin zuzena izango dute Ernairen prozesu feministan ere, antolakundearen inguruan sortutako taldeak izanik elkar harremanean egongo direlako etengabe.

Amaitzeko, aipagarria da militantzia ereduaren inguruko hausnarketa bultzarazten duten dinamikak ere egiten hasiak direla zenbait talde. Militantzia eredu aldaketak, gauza asko suposatzen ditu; besteak beste, zaintzarako mekanismoak ezartzea. Horiek oraindik ez dira oso ohikoak, baina, ikuskatu dugun herriko bileran, astero egiten duten lehen gauza da *eguraldiaren erronda*. Kide bakoitza zer moduz dagoen esaten dute bilera hasi aurretik, eta horrela ekidin egiten dituzte bilera zehar egon daitezkeen gatazkak, eta erdigunean jartzen dute emozioa 24 orduko militantzia ereduak sustatzen duen muturreko arrazionalizazioaren aurrean. Militantzia eredu

maskulinizatua albo batera utzi eta *sostengarria den militantzia* baten alde egiteak, ikuskera aldatzeaz gain, jarduteko modu berri bat eskaini dio antolakundeari. Uka ezina da, ordea, antolakunde “feminista” bateranzko prozesuan hasierako faseetan gaudela oraindik (ikuspegi feministatik ulertzen dugu inoiz ez dela zerbait ehuneko ehunean feminista izango, aitzitik prozesuak eta aldaketak direla gertatzen direnak, etengabeko hausnarketak bultzatuz, gizon emakumeen arteko botere harremanak deuseztatu eta gainontzeko zapalkuntzak hausnartu eta kuestionatzeko bidean).

b) Ahulguneak

Urrats Feministak Ernai gazte antolakundean eragina izan badu ere, eta hipotesietan zehaztutakoa baino aldaketa sakonagoa izan arren, agerian gelditu dira, ikerketaren bidez, prozesuak bete ez dituen zenbait helburu edo urratsak edukitako ahulgune batzuk. Horietan nagusiena, eta batez ere aurreko atalean gehien azpimarratu diogunari kontrajarrita, gizonen haien pribilegioei uko egiteko lanketa espresu bat ez abiatu izana da. Begirada feminista batetik, beharrezkoa da emakumea subjektu moduan indartu eta boteretzea. Ordea, antolakunde misto batez ari garenean, garrantzitsua da parte hartze politikoan oreka egon dadin gizonen, eta batez ere boteredunek (hau da, herrietako militantziaz gain bestelako ardura, gehien bat publikoak, dituzten horiek) desboteretze prozesu bat abiaraztea. Izan ere, hori gertatu ezean, arriskua dago emakumeen ahalduntzea bai, baina militantzia eredu maskulinizatua ez aldatzeko; eta ondorioz, dinamika berdinarekin aurrera jarraituko genuke errotiko aldaketarik gabe.

Ondorio gisa baieztatu dezakegu ezjakintasunaz gain gizonen aldetik, pribilegioak galtzearen beldurra eta norberaren lan egiteko eta harremantzeko moduen gaineko hausnarketa izan dela erresistentziako puntu nagusiena. Izan ere, diskurtsiboki ados egon arren, zaila izaten da praktika feminista egunerokora ekartzean norberaren pribilegioak deseraikitzea. Zentzu horretan oreka falta da emakumeen ahalduntze kolektiboaren eta gizonen deseraikuntzaren artean. Talde dinamikaren batean gatazkaren bat izanez gero, eta gizon batek beste gizon bati aurre egin behar dionean, begi bistakoa da hutsune bat dagoela gizonezkoek elkarri eraldaketa prozesu horretan bultzatzeko. Horrela, talde dinamikaz hausnartzen hasterakoan edo norberak dituen harremanak ezbaian jartzean, prozesuarekin aurrera egiteko oztopoak agertzen dira, eta orduan azaltzen dira, batik bat, diskurtsoaren eta praktikaren arteko arrakala nagusiak. Dena den, laugarren kaiera da taldeko dinamiketan dauden sexu-genero sistemaren gaineko desberdintasunak detektatu eta desorekak gainditzeko mekanismoak eskaintzen dituenak.

5.2 Urrats Feministak prozesuan murgilduta egon direnengan edukitako eragina

Bigarren hipotesiaren bitartez aztertu nahi izan da ea Urrats Feministan murgilduta aritu diren militanteek gainkarga gisa bizi izan duten prozesua, ala aitzitik, boteretzea eragin dien haiei ere, kide moduan. Egia da, militanteek zama sentitu dutela lau urte hauetan zehar (eta hortaz, hipotesia baieztatzen da hein batean). Bestalde, ordea, aitortu behar da hitz egindako kide guztiek bat egiten dutela esatean ahalduntze bat gertatu dela haien militatzeko moduan eta prozesuaren ostean militantzia beste era batera bizi dutela. Batik bat, politikagintza hegemonikoan baztertuago izan diren gorputzek hartu dute parte prozesuko lan taldeetan (*maritxua*, emakumeak), eta Urrats Feministak eragiteko gaitasuna eta boterea eman die kide horiei. Azpimarratzekoa da hortaz, prozesuak orain arteko militantzia ereduan alboratutako subjektuak ahalduntzeko izan duen gaitasuna. Era berean, ikerketaren bitartez ikusi ahal izan dugu feminismoan aritzen diren kide horiek legitimitatea dutela taldekide guztien aurrean gai konkretuen inguruan aritzeko (jai eredu parekidea, protokoloa, prozesua bera, martxoak zortzi, azaroak 25...).

Kontrapartida gisa, militante gizonak ez dute hain bere sentitu prozesua, eta hortaz, feminismoari dagozkion gaiak askotan soilik kide (emakumezko gehienetan) horiengan delegatu da. Agerian gelditu da aipatutakoa Hernaniko saioan jaietan oholtza gainean norik egon behar duen erabakitzerako unean (gogoratu *zure dj-a* esapidea). Dinamika hori, ordea, orokorra da, eta egiturako maila ezberdinetan sumatzen da. Auzoan eta herrian egunerokoan horrelako egoerei aurre egin behar badiete ere, lan talde feminista nazionalak askotan berez egin beharko ez lituzkeen lanen ardura ere hartu izan du “feminismotik” lantzeko. Horrek, batetik nekea eta frustrazioa sortu duela ikusi ahal izan dugu, eta bestetik, erroan gai horiek ez lantzea ekar dezakeela ere bai. Beti talde berari egin behar berdinak delegatuz gero, erosotasun dinamika bat hartu dezake talde osoak. Askotan soilik “feminismotik” militatzen duten horien figura sortu da, eta beraz, haiei egotzi zaie taldean sortutako sexu-genero desberdintasunei aurre egiteko lana. Modu horretan, eta hipotesietan esan bezala, arriskua dago gainontzeko kideek feminismoa “kanpoko” lanketa baten moduan jaso dezaten.

Hain zuzen ere, gazte antolakundeko zenbait sektorek “kanpoko” dinamika gisa identifikatzean, badirudi militantziak orokorrean ez duela balioan jarri Urrats Feminista mugarria izan dela. Egunerokoan talkak bizitzeak askotan amaierarik gabeko tunel batean egoteko sentrazioa eman die dinamizatzaileei, eta zenbait taldetan, azken uneko gai moduan landu denez, askotan ez dute prozesua bera balioan jartzen denik

sentitu. Ondorioz, kanpoko eragile zenbaitek, balio handiagoa eman diote prozesuari, barneko kideek baino.

5.3 Feminismoaren garrantzia beste ildo estrategikoekin alderatuz

Ezker Abertzaleko gazte antolakundeek ia 40 urte daramate Independentzia eta Sozialismoa aldarrikapen nagusi gisa aldarrikakutzen. Horregatik, azken hipotesi gisa planteatu zen ea feminismoak lortu zuen beste bi ildo estrategikoek hainako garrantzia edukitzea. Ikerketaren ostean, ondorioztatu dezakegu, egun puntualetan garrantzia handia hartu duela feminismoak, eta estatus-aldeetik ere beste bi ildoek hainako garrantzia izan duela. Estrategikoki pisu handia hartu baitu prozesuak, eta gainera, lehenago azaldu moduan, prozesua lanean aritu diren militanteek legitimitatea lortu dutelako haien iritzia partekatzeko orduan.

Egun zehatzetan talde feministak eta komunikazio taldeak gogoz egin dute lana, eta egun, gainontzeko mugimendu feminista eta LGTBlekin batera, erreferentziazkoak izaten dira haien diskurtsoak eta ekintzak ere (ikus beharko litzateke hori begirada feminista batetik produktiboa den ala alderantziz, berez ikusgarritasuna behar duten subjektu horiei protagonismoa kentzen ote zaien haien aldarrikapen egunean). Emakume eta bestelako gorputz ez hegemonikoen presentziak ikusgarritasuna eta hein batean boterea eman die militante horiei..

Gainera, kaieren lanketak zentralitatea eman diola prozesuari lehen lau urtetan. Horrek, hein batean gainontzeko ildo estrategikoekiko parean jarri du feminismoa. Ordea, etengabe aipatzen ari garen moduan emaitzak berehalakoak eta oso ikusgarriak ez direnez (eta gainera talde bati egozten zaionez prozesuaren ardura), askotan ikusezina bilakatzen da, eta ematen du beste ildoek baino pisu gutxiago duela antolakundean. Hala ere, maila nazionaletik herrietaraino, kaierak lantzeak eta bilera arruntetan ere begirada hori presente egoteak agerian uzten du ildo honek besteen hainako garrantzia hartu duela.

Hala ere, egia da, beste bi ildo estrategikoek historikoki modu transbertsal batean lantzeko joera hartu badute ere, feminismoak oraindik ez duela lortu bestelako gaietan zehar-lerro gisa lantzea. Badirudi feminismoa gutxi batzuei delegatu zaien lana izanik (naiz eta hori ekiditeko mekanismoak ezarri diren), horiei dagokiela askotan lanketa aurrera eramatea, aparteko borroka ildo izango balitz bezala. Horrek ekarri du gainontzeko lanketetan eta ildo estrategikoetan ez jartzea bereziki arreta begirada feministatik. Zehar lerro gisa ez lantzeak aparteko gai moduan eta "feministen" lanketa

bezala ulertzea ekarri du. Datozen urteetan finkatu beharko du antolakundeak nola kudeatu feminismoa gainontzeko ildoetan txertatzea.

Laburbilduz, esan genezake, Erani gazte antolakundearen lehen lau urteotako prozesu feministak egitura eraldatzeko oinarriak finkatu dituela diskurtsiboki, eta praktikoki ere bidea ireki duela. Horren adibide da kide feministek antolakunde barruan duten legitimitatea, eta baita emakume militanteek zein bestelako gorputz ez hegemonikoek izan duten boteretze kolektiboa. Horren ondorioz, parte-hartzea orekatu egin dela esan genezake, nahiz eta agerikoa den militante gizon gehiago dagoela emakume baino. Bestalde, militantzia ereduari dagokionez ere, lehen hausnarketak egin dira eta zenbait mekanismo jarri dira abian edo jartzear daude.

Emakumeen ahalduntzeak ordea ez du ekarri gizonen pribilegioen desjabetze bat eta horrek, egunerokoan talkak sortu izan ditu. Beharrezkoa izango da egunerokotasunean horrelako gatazkak izan ez daitezen tresnak proposatzea. Gainera, askotan prozesuan lanean aritu diren horiek errekonozimenduaz gain, gaitz sentitu dute, haien lanak eta ez direnak bere egin behar izan dituztelako. Horrek frustrazioak sortu ditu kide emakumeengan eta gizonen urrunago sentitu dute prozesua. Dena den, esan bezala etenik gabeko prozesua izanda, bigarren fase honetan interesgarria litzateke militantzia ereduaren inguruko hausnarketa eta pribilegioen desjabetza bat egiteko mekanismoak ezartzea.

5. 4 Gogoeta pertsonala

Ernai gazte antolakundearen prozesu feministaren inguruko lana egiteak, batetik, Ernairen Urratsaren inguruan gehiago ezagutzeko, eta izandako aldaketak modu sakonagoan aztertzeko aukera eman dit. Izan ere, egunerokotasuneko dinamikan sartuta, askotan ez dugu gertatzen ari dena perspektibaz ikusten. Ondorioz, ikerketan parte hartu duten beste zenbait kideren moduan, ez nuen uste prozesuak horrelako aldaketak ekarri dituenik. Feminista moduan, eta aipatutako zenbait autorek azaltzen dutena babestuz, iruditzen zait oso zaila dela erakunde misto batean feminismoaren aldeko apustua egin eta bira ongi ematea. Feminismoa pertsonala politiko bilakatzea da, eta horrek kontraesanak gairatzeko aukera ematen badizu ere, aldi berean, prest egon behar gara korapiloak askatzeko etengabe. Eguneroko dinamika batean sartuta, askotan zaila izaten ohi da gelditu eta norberak naturalizatutako jarrerak eta harremanak birplanteatzea.

Bestalde, lana begirada feminista batetik eginda, aukera izan dut teorian esandakoa hein batean praktikan jartzeko. Batetik, planteatutako ikergalderei ongi lotzen zitzaielako, baina baita epistemologiko hala zehaztu dudalako, aukera izan dut taldearekin modu parte-hartzailean lan egiteko. Horrela ikusi dut posible dela ikergai den talde horrekin elkarlanean ikerketa aurrera eramatea. Bestalde, metodologikoki uste dut tresna egokia osatu dugula erakunde mistoetan prozesu feministek zein nolako forma hartu duten eta zein nolako eraldaketa eduki duten *neurtzeko*. Izan ere, Pili Alvarezek dioen moduan, gutxi dira oraindik (baina geroz eta gehiago) militantzia ereduaren inguruan eta gizon emakumeen parte-hartze politikoaren inguruan (batez ere herri mugimenduetan zentratuta) hausnartzen duten lanak. Zentzu horretan, prozesuak ezagutzeko tresnak ezagutzea eta sortzea beti da aberasgarria.

Amaitzeko, interesgarria litzateke lan honen ostean ezagutzea Ernairen Urrats Feministak zein nolako forma hartuko duen bigarren epealdi honetan. Pertsonalki, Politika Zientzietako gradurako beste gradu amaierako lan bat egin behar dudanez, uste dut interesgarria litzatekeela etorkizunerako zehaztutako erronken ildoari jarraitzea, edo egindako “diagnostiko” hau beste antolakunde batzuetara aplikatzea. Gainera, uste dut ikerketa baliagarria izan dela orohar erakunde mistoetan isilduak eta baztertuta izan diren militante emakumeei ahotsa emateko, eta haien egunerokoan zein erresistentzietan eta oztoporri aurre egin behar izan dieten ikusarazteko.

BIBLIOGRAFIA

- Alfama, Eva; Miro, Neus; Martí, Marc; Gimenez, Laura; Obradors, Anna; Gonzalez, Robert,(2005). Género y movimientos sociales: la participación de las mujeres en la Plataforma en Defensa del Ebro. *VII Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración: Democracia y Buen Gobierno*. Madrilen antolatutako kongresua.
- Amurrio, Mila. (1995). Jenero Konzeptuaren inguruko hausnarketak. *Uztaro*, 13, 89-98.
- Azpiazu Carballo, J. (2015). Hombres y feminism: del privilegio del confort a la incomodidad de la implicación política en cuestiones feministas. *Papeles del CEIC International Journal on Collective Identity Research* (2), 4.
- Larrinaga, A., & Amurrio, M. (2013). Género y participación ciudadana local: límites del diseño participativo de base asociativa del municipio de Bilbao. *Revista Mexicana de Sociología*, 75(2), 201-223.
- Aranguren, Miren; Epelde, Edurne; Retolaza Iratxe. (2015). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*. Andoain: Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro feminista .
- Bericat, E. (1998). *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social: Significado y medida*. Bartzelona: Ariel.
- Bidegain, Iurre. (2017). [online] Kazeta.eus. Ikusgarri: http://kazeta.naiz.eus/es/info_kz/20161215/asteburu-ubela-antolatuko-du-aitzinak-senperen [Ikusia Apr 29 2017].
- Butler, Judith. (2006). Deshaciendo el género. *Jacques Lacan-sesión del 14*.
- Carballo, J. A. (2015). Hombres y feminismo: del privilegio del confort a la incomodidad de la implicación política en cuestiones feministas. *Papeles del CEIC, International Journal on Collective Identity Research*, (2), 4.
- Dañobeitia, Olatz (2016). "Biolentzia politikoa eta generoa Euskal Herrian, 90. hamarkadan. Ezker Abertzaleko emakumeen kasua.
- Gallego, M. J. C., & Rojas, A. V. (2005). *Proyectos y estrategias de investigación social: la perspectiva de la intervención*. Madril: McGraw-Hill.
- Garcia, Z. M. (2014). Botere politikoa eta herri ekimena indartzeko prozesuak. *Jakin*, (203), 11-30.
- Güell, P. I., Gomà, R., García, R. G., & i Puig, S. M. (2002). Movimientos sociales, políticas públicas y democracia radical: algunas cuestiones introductorias. *Creadores*

de democracia radical: movimientos sociales y redes de políticas públicas(or. 9-22). Icaria

-Ernai Gazte Antolakundea (2013) *Urrats feminista 01: Feminismoa bizi ereduen oinarri*.

-Ernai Gazte Antolakundea (2014). *Urrats feminista 02: Historiatik ikasten gure feminismoa zehazteko*

-Ernai Gazte Antolakundea (2015). *Urrats feminista 03: Pentsamendua eta praktika feminismitik aztertzen*.

-Ernai Gazte Antolakundea (2017). Zirtaka ponentzia

-Esteban, Mari. Luz. (2004). *Feminismoa: teoria eta praktika. genero kontzeptua Genero ikuspegia duen esku-hartze baterantz*

-Esteban, Mari. Luz. (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Donostia. Susa

-Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Leioa: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

-Lahaine.org. (2000). *Haika: La juventud vasca contra la globalización y por la independencia y el socialismo para Euskal Herria*. [online] Ikusgarri: http://www.lahaine.org/paisvasco/haika_herria.htm [Ikusia Apr. 30 2017].

- MARTÍ I PUIG, S. (2002). Los movimientos sociales. *Materiales interpretativos e interactivos sobre una política para una ciudadanía activa*, 1-2.

-Martínez, Z., Casado, B., eta Ibarra, P. (2012). Movimientos sociales y procesos emancipadores. *Hegoa lan koadernoak*, (57).

-Martinez, Tania (2015) "La Violencia sexista en colectividades sociales y políticas de izquierdas y procesos de resiliencia de mujeres activistas". Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean aurkeztutako MALa: https://www.academia.edu/16405289/La_violencia_sexista_en_colectividades_sociales_y_pol%C3%ADticas_de_izquierdas_Casos_y_procesos_de_resiliencia_de_mujeres_activistas?auto=download

- Millet, Kate (1969) *Política Sexual*. Madril: Ed. Cátedra

-Piris, Silvia (2015). "¿Emancipación sin feminismo? Transitar de la marginalidad a la centralidad del feminismo en las organizaciones mixtas". Manu Robles-Arganz institutua

-Rodríguez, Zuriñe. eta Etxebarrieta, Oihane. (2016) *Borroka armatua eta kartzelak*. Donostia: Susa.

-Sagastizabal, M. (2015). Vivencias del tiempo social: compaginar la participación política, el cuidado y el empleo. CECS.

-Segi (2009). *Zer gara.* Ikusgarri:
https://web.archive.org/web/20111107114722/http://www.independentzia.net84.net/index.php?option=com_content&view=article&id=11&Itemid=17 [Ikusgai Apr 30]

-ZUMALABE, F. (2014). Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantziak eta horizontaltasunaz hausnartzen. Bilbo: Zumalabe

Beste kontsultak:

<http://nafarroakoparlamentua.eus/eu/composicion-organos/parlamentarios-forales>

http://www.legebiltzarra.eus/comparla/c_comparla_alf_ACT.html

<http://www.unwomen.org/es/what-we-do/leadership-and-political-participation/facts-and-figures>

ERANSKINAK

Karteldegia

1.-Batera egingo dugu! Kanpainaren kartela



2.- Zernai gara! Kanpainak, Ekainak 28ren harira



EKAINAK 28
SEXU ASKAPENAREN
ALDEKO
NAZIOARTEKO
EGUNA


zernahi gara!

GORPUTZ GUZTIAK. PRAKTIKA GUZTIAK

ernai

3.- Martxoak 8 eta Azaroak 25eko kanpainak







Diseinu teknikorako gidioak eta taulak

1.- Elkarrizketen gidioa.

1. BLOKEA: Militantzia perfila eta prozesuaren bizipena

- a. Zuen ibilbide militantea kontatu (hasieratik Ernaien, aurreko gazte mugimendua ea ezautu duen...)
- b. Hasieratik daramazu lan talde feministan?
- c. Zerk motibatuta sartu zinen prozesuan buru belarri?
- d. Zure lana baloratua dela uste duzu? Lan talde feministan nola sentitzen zara? Taldean eta gainontzeko egiturarekiko

2. BLOKEA: Feminismoa borroka ildo moduan

- a. Nola eman da feminismoa independentzia eta sozialismoarekin batera aldarrikapenerako lehen lerroan jartzeko jautzia? (Lan talde nazionalekoentzako galdera)
- b. Uste duzu beste borroka ildoek bezainbesteko garrantzia duela militanteentzako (Erresistentziak)
- c. Zer da, zure ustez, feminismoa ildo estrategiko gisa definitzea?
- d. Kaieretan landutako eduki teorikoak praktikara pasatzerakoan, erresistentziarik topatu duzue? Edo lortu da militanteengan eragina izatea?

3. BLOKEA: Urrats feminista, mugarría.

- a. Ernaik aldaketa suposatu al du aurreko gazte-antolakundearen dinamikekin? Nolakoa?
- b. Eta, Ezker Abertzaleko gainontzeko egiturekin alderatuta?
- c. Uste duzu aldaketa gertatu dela:
 - i. Maila diskurtsiboan
 - ii. Militantzia eremuan
 - iii. Egituraren antolakuntzat

4. BLOKEA: Prozesua praktikan. Lau urteri begirada

- a. Zein aldaketa sumatzen duzu azken lau urtetako militantzia eremuan?
- b. Kaiera eta ekinbide feministez gain, lortu da feminismoa zeharlerro gisa identifikatzea eta bestelako borroka ildoetan lantzea?
- c. Zuretzako zer da antolakunde bat feminista izatea?
 - i. Eta, zer eskaintzen dio urratsak Ernairen proiektuari?

2.- Donostiako ebaluazio saioko txantiloia

Kasuhonetan aipatu beharreko aldagaiak ez dira mahaiko parte hartzaileei dagozkionak, baizik eta ebaluazioa egiterako unean kontuan hartu diren irizpideenak:

a) Balorazio orokorra.

Norberak prozesuan zehar izandako bizipenak eta kide bezala izandako ahalduntzea (edo ez) azaltzea eskatu zaie kideei. Garrantzitsua iritzi da ezeren aurretik horrelako galdera planteatzea; hasieran pertzepzio bat eduki daitekeelako eta saioa egin ostean, alda daitekeelako. Lehen erantzunean beraz, norberak haren kokapenetik eta bizipenetik soilik erantzungo du, pentsatzeko denbora tarte handirik gabe. Garrantzitsua da lehen inpresioa jasotzea.

b) Metodologia.

Urrats Feministak aurrera eramandako metodologia egokia izan ote den hausnartuko da kasu honetan. Izan ere, Ernaik feminismotik eraldatu nahi badu, garrantzitsua iruditzen zaio aldaketa hori nola egin den aztertzea, eta hutsik egonez gero horiek birmoldatzeko zuzenketak egitea.

c) Edukiak

Hego Euskal Herria mailan lanean diharduen antolakuntza izanik, kide ugari ditu Ernaik. Horregatik garrantzitsua da jasotzea ea edukiak zein nolako "maila" eman duten. Batzuentzat maila baxukoak izango dira, besteentzat gauza berriak. Prozesuak antolakuntza osoan eragina izan dezan talde feministak iritzi du edukiak denei eskuragarriak izan daitezela. Kasu honetan gainera, kaieren edukiaren egokitasunari buruz ere galdetu zaie militanteei.

d) Denboralizazioa

Lau urteko prozesuaren ostean, garrantzitsua da eten bat egin eta egindakoaz jabetzea. Zein denbora tarte erabili diren eta kaierak lantzeko nahikoa denbora eta hurbiltasun eta prestutasun egon ote den aztertzea garrantzitsua da. Modu honetan, herri eta auzoetako militanteekin egindako lanak eragiteko denbora gehiago behar ote

duen hausnartu ahal izango da, eta era berean, egituraren maila ezberdinen arteko komunikazioan denboragatik hutsunerik egon ote den ere ikusi ahal izango da.

e) Aldaketaren nolakotasuna.

Aldagai hau kontuan hartuta dagokigun ikerketarako informazio interesgarria eskuratu ahal izango da. Izan ere, mahaiko kideek termometro baten bitartez irudikatu beharko dute haien ustetan prozesuak zein nolako aldaketa izan duen maila diskurtsiboan, militantzia eremuan eta egitura bertan. Dinamika honen bitartez ikerketa honetarako informazio baliagarria jasoko dugu beraz, ikusiko dugulako hiriburu batean zein nolako aldaketa sumatu den lau urteren ostean.

f) Etorkizuneko erronkak

Amaitzeko, lau urteko zikloaren ostean eta Iñurritegia Kongresua eta gero, datozen lau urtetarako prozesuak zein nolako aldaketa egin beharko lukeen (edo egin beharko ote lukeen) galdetuko zaie Donostiako kideei. Kasu honetan , aurrerago ikusiko dugun moduan, garrantzitsua da Kongresutik ateratako azken ponentziak (Zirtaka), antolakunde feministarako bidean hartutako neurriak aztertzea. Diskurtsoen analisiaren eta ondorioen atalean emango da horren berri.

Hona ebaluazio dinamika egiteko erabilitako plantilla-gidoia

KAIERA: Dinamizatzailen saioa

2017-05-12

1. BALORAZIOA> Lau urtetako urratsaren balorazioa (lau urteetan zein aldaketa eman dira antolakundean?)

1) Lehenik banaka landu eta ondoren talde handian konpartitzeko. Urrats Feministak bere ostasunean, zein eragin izan du zure ustez...

-Maila diskurtsiboan?

-Militantzia eremuan?

-Antolakunde mailan?

2) Bi edo hiruen artean Kaiaren inguruko hausnarketa egin ondorengo aldagaiak kontuan hartuz. Ondoren, taldean konpartitu:

- Metodologia
- Edukia
- Denboralizazioa

3) Teorikoki eta praktikoki lau urtetako prozesuaren balorazio orokorra talde osoak elkarrekin

2. BIGARREN URRATSA> Nola irudikatzen dugu?

- Edukiak
- Erronkak
- Metodologia

**Ideia Zaparradaren* formatuan. Helburua: Ekarpinak jasotzea, prozesu feministaren bigarren epealdia nola bideratu erabakitzeko.

Hernaniko behaketa saiorako txantiloia

Asteko bilera arruntera joan da behatzailea. Hernanin 17 kide dira, horietatik lau emakumeak, eta gainontzekoak, (13) gizonezkoak. Behatzailea joan den bilerara, ordea, hamar lagun joan dira: hiru andrazko eta zazpi gizon. Bi ordu iraun du saioak eta honakoa izan da gai ordena: Hasieran “eguraldiaren erronda” egin dute (bakoitzak eguraldiaren bidez espresatzen du haren emozioa; eguzkitsu, hodeitsu, ekaitza... egon daiteke militantea). Ondoren asteko kronika egiten dute, eta orduan ekiten diote gaien inguruko eztabaidari. Kasu honetan, hauek izan dira landutako gaiak: Usurbileko Sagardo egunean eta herrian bertan egin beharreko taberna txanda, ekintza baten nondik norakoak eta jai ereduaren inguruko hausnarketa. Kontuan edukirik Ernaien izaera “alegala”, segurtasunagatik erabaki dute behatzaileari azken orduan sartzen uztea. Beraz, bi orduko saioen nondik norakoen inguruan kideekin hitz egin den arren, ikerketa honetarako interesgarria den atala jorratuko da (hori baita jaso dena behaketaren bidez); hain zuen Hernaniko jaiak badatozela-eta, jai ereduaren inguruko eztabaida. Hona ikerketan aipatu ditugun aldagaiak kontuan hartuta datuak jasotzeko txantiloia ezberdinak.

- 1) Partaideen nolakotasuna (bakoitzak zenbaki bat hartuko du identitatea gordetzeko)

Kideak	Adina	Sexu-Generoa	Rol edo ardura
<u>1</u>			

<u>2</u>			
<u>3</u>			
<u>4</u>			
<u>5</u>			
<u>6</u>			
<u>7</u>			
<u>8</u>			
<u>9</u>			
<u>10</u>			
<u>...</u>			

2) Kokapena eta parte-hartze katea

Bilerako mahai irudikatu dugu. Inguruan kideen kokapena nolakoa den apuntatuko dugu, aurreko plantillan eman diegun zenbakiaren arabera. Taula barrua, berriz, parte-hartze katea adieraziko dugu. Zein kidek parte hartu duen eta interbentzioa luzea izan ote den apuntatuz. Adib: 1-4-1-4-5-4 (luzea)-2-4-7-1-9-...



Kokapena mahairen inguruan

Behatzailea



Parte-hartze katea:

- 3) Parte hartzearen nolakotasuna.: Ikerketarako deigarriak/adierazgarriak izan diren interbentzioak jasoko dira. Nork egin duen, zein sexu generokoa den eta parte hartzearen nolakotasuna biltzeko:

Nork egin du interbentzioa?		
Zenbakia	Hitzartzearen nolakotasuna	Hitzartzearen nolakotasuna
....

- 4) Gai eta egin beharren lehentasuna: Taula honen bidez gai zerrenda osatuko dugu. Bakoitzari dagokion denbora tartea jasoko dugu eta gai bakoitzaren inguruan hizketan nork parte hartu duen (sexu-generoaren arabera) eta zein intentsitatekin bilduko dugu:

Gai zerrenda	Eskainitako denbora	Nork hartu du parte? Nola?
...